ARGIA

ZALDIBAR

Krisia lehertu da Euskal Oasian

Zaldibarko zabortegi honen aurkako borroka luzearen historia

Irregulartasun zantzuak Jaurlaritzaren kontrol mekanismoetan

#2.678 | 2020 / 02 / 23 | 3,90 €

Errugabetasuna erosi nahi du Sackler opioideen gameluak

10 I NET HURBIL

"Bada inor ETBko programazioan euskaratik pentsatzen duenik?"

43 I ANJEL LERTXUNDI

LARRUN #250
Zerk salbatuko du katalana?

ARGIA

XAPOKETAN

KARTA-JOKOA

Ezagutu Euskal Herriko animaliak!

Euskal Herriko lurralde banatako zazpi ekosistema eta 42 animalia ezagutuko ditugu. Karta hauekin 5 jolas ezberdin egin daitezke: familia jolasa, puzzlea, ezkutaketa eta memoria eta azkartasun jokoak.

Edukiak
Iñaki Sanz Azkue
Biologoa

Ikuspegi pedagogikoa
Lore Erriondo
EHUko irakaslea

Marrazkiak
Eñaut Aiartzaguena

AZOKAN SALGAI!
15€*

POSTERRA SALGAI!
6€*

Eskaerak egiteko sartu: **AZOKA.ARGIA.EUS** edo deitu: **943 37 15 45**

*Bidalketa gastuak 4 €

ARGIA

2.678 zenbakia | Otsailak 23, 2020

Panorama

04 | ASTEKO ARGAZKIA
06 | AKTUALITATEA
07 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
07 | EZ HANKA EZ BURU
08 | EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

17 | IRATI LABAIEN EGIGUREN
18 | KATIXA DOLHARE
19 | IMANOL ALVAREZ
19 | ITXARO BORDA
20 | KIMETZ ARANA BUTROE

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

39 | DENBORAREN MAKINA
40 | BIZI BARATZEA
42 | ARGIA KOMUNITATEA
48 | KULTUR-KRITIKAK
50 | ZUZENEKO EMANALDIA
51 | DENBORA-PASAK
52 | ARGI-KONTRA: SAIOA BALEZTENA
54 | BERANDUEGI

DANI BLANCO

43 | **ANJEL LERTXUNDI**
Mende erdiko ibilia egin du literaturan, *Hunik arrats artean* (1970) lehen lana plazaratu zuenetik. Itzulpengintzari buruzko saiakera metaliterarioa du azken alea, *Itzuliz usu begiak*. Gorka Erostarbek elkarrizketa egin dio, berarekin ibilian-ibilian.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL
Miliarrak banatuz erosi nahi luke errugabetasuna sackler familiak, opioideen gameluak
Jenofa Berhokoirigoin

12 | ARRATE CORRES
“Tokikotasuna ez da kilometrotan neurtzen, botere harremanetan baizik”
Miel A. Elustondo

21 | GIZARTEA
Herrian zabortegiak debekatzetik, hamarkadako krisira
Lander Arbelaitz Mitxelena

30 | POLITIKA | THOMAS PIERRE ANTROPOLOGOA
“Euskal hiritartasuna eraiki nahi duen herritar batek ezin du estatu arrotzarekin bat egin”
Mikel Asurmendi

34 | EUSKARA HERRIKO ETXEETAN
Neurriak hartzeko deia hautetsiei
Jenofa Berhokoirigoin

36 | EKONOMIA | JESÚS MARÍA SOUBIES
“Noski pentsioak bideragarriak direla”
Zigor Oleaga

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Maria Ortega, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olasolo, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:

antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

CC BY SA

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

EZ DIRA PERTSONA

Estrasburgoko epaitegiak iritziz aldatu eta mugan berehalako kanporatzeak legezko direla dio orain. Migratzaileek beraiek "legez kanpoko zerbait egitea nahita" erabakitzen dutelako. Hau da, zerbait ustez okerra berariaz egiteak oinarrizko eskubiderik gabe uzten du pertsona. Hesia gainditu dutenek ez dutelako iraganik. Berdin da gerratik, pobreziatik edo salerosketatik ihesi joatea. Ez dira pertsona. Lege-urratzaileak besterik ez. Prodein GKEko kide José Palazónek dioen gisan, "Europako Giza Eskubideen Epaitegiak erreferentzia izateari utzi dio. Honezkero giza eskubideek ez dute epaitegirik. Orain gobernuen eta Europan hazten ari diren talde faxisten eskubideen epaitegi bat dago". Gizakien eskubideak baino, hesitzeko eskubidea babestu du Europak.

A. KOERNER / GETTY IMAGES AXIER LOPEZ

#ZALDIBARARGITU

EZ AIREZTATU, EZ JAN BARAZKIRIK, EZ EGIN KIROLIK, EZ ARNASTU. BAINA GOGORATU: EZ DAGO ARRISKURIK

@OihanaBartra

FUTBOLARIEK EZ DUTE LANIK EGINGO EIBARREN, BAINA KALE GARBITZAILEEK BAI?

@pmendibil

ZALDIBAR, EAJ-REN PRESTIGE BIHURTZEKO ZORIAN

@SALAMANCAFJ

HAU SENTSAZIOA. AHOA ZABALDU ETA ARNASA HARTZEN DUGUNERO, DIOXINAK ETA GEZURRAK IRENSTEN IBILI BEHARRA

@asarasua

EIBAR ETA ERMUA LOTZEN DITUEN BIRIBILGUNEAN KATEATU ETA TRAFIKOA MOZTU BERRI DUGU "ZALDIBAR ARGITU" ALDARRIA BABESTU ETA HERRIA DEFENDATZEKO. "JAURLARITZAREN NORMALITATEAREKIN" HAUSTEKO MOZTU DUGU TRAFIKOA

@ernaigazte

JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

460 familia etxegabetzeko arriskuan funts putreengatik

MARIA ORTEGA ZUBIATE

Donostian Azora enpresa espainiarrak 300 etxebizitza erosi ditu, eta bertakoen kontratuak berrituko ez dituela jakinarazi die bizilagunei. Bestalde, Iruñean alokairu sozialeko 160 etxebizitza erosi ditu Testa Residencial enpresak.

Kaleratzeak Stop plataformak jakinarazi du Donostiako etxebizitzak erosi dituen funts berak Madrilen ere 3.000 etxebizitza sozial erosi eta alokairuaren prezioa %150 igo zuela. Gauza bera egin zuen Bartzelonan ere, prezioa %70 igoz. Hurrengo hiria Donostia dela argi dute, funts putreen helburu bilakatu dela salatu baitute, *Berria*k jaso duenez.

Bizilagunak arduratuta azaldu dira, izan ere 300 etxebizitza horietatik gehienek 600 eta 900 euro arteko alokairua dute, baina badaude 1.600era heltzen direnak ere, eta prezio igoerarik egonez gero horiek ordaintzeko aukerarik izango ez dutela azaldu dute.

Horren aurrean, Donostian manifestazioa egin zuten pasa den igandean, otsailaren 15ean, Stop Kaleratzeak plataformak deituta.

Bere aldetik, Testa Residencial enpresak alokairu sozialeko 160 etxebizitza erosi ditu Iruñean, EH Bilduk Hirigintza Batzordean jakinarazi duenez. Endika Alonso EH Bilduko zinegotziak azaldu duenaren arabera, alokairu sozial izaera amaitu zaien momentuan funts putreak erosi eta alokairuaren prezioa igo du.

Etxebizitza hauetan bizi diren familietatik asko bazterketa arriskuan daudela eta prezio igoera horrek kalean utz ditzakeela salatu du zinegotziak. Bestalde, aurreko legealdian Iruñea etxegabetzerik gabeko hiri izendatu zutela gogorarazi dio Udal Gobernuari, Euskalerria Irratiak nabarmendu duenez.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Superbia

ARITZ GALARRAGA

Bada jende klase bat oso graziosoa zaidana. Graziosoa diot, ze azkenerako umorez hartu beharra duzu asuntoa, desesperatuko ez bazara. Jende klase hori da begietara begiratzen ez dizuna. Baina begietara begiratzen ez dizuna, ez adibidez lotsagatik, niri gertatzen zaidan bezala –barka inoiz halakorik egin badizut, irakurle maite–; baizik eta zuri begietara begiratzea esfortzu handiegia delako haientzat, ez zarelako haiek zuri begietara begiratzeko bezain duin. Eta, aitortuko dut, urteekin gero eta okerrago daramat jendearen hantuste hori, zehatzago: ezin dut jasan euskaldun batzuek erakusten duten soberbia. Nire independentziaren aurreko jarrera epela ez ote den estatu propio batekin aipatu jarrera areagotuko litzatekeen ustearekiko proportzionala.

Jar dezagun adibide bat, goitik behera asmatutakoa –errealitatearekin izan dezakeen antzekotasun oro kasualitate hutsa da–: goizero, duela jada zenbait astetatik, leku berera joaten zara kafea hartzera –ebakia, deskafeinatua–. Ados, ez zara munduko tiporik atseginena, ez begiratzeko errazena. Baina, kontxo, kafe prestatzaile estimatua, zenbait aste iragan direla jada, begiratu arinki, laburzki bada ere begietara, otoi, besterik ez bada insistentziagatik. Bada, ez dago modurik, aizue. Eta pentsatu nahi dut kasu honetan ez duela harrokeriarekin zerikusirik, seguru gehiago dela lotsagatik –gogoratu adibide honek errealitatearekin izan dezakeen antzekotasun oro kasualitate hutsa dela; batez ere ez dudalako eguneroko kafea galdu nahi–. Baina orduan zergatik ematen dut buelta erdi, eta dena da poz, dena bozkario? Badakit euskaldunak garela, baina, kontxo, ez gaitezen hermetikoki itxi, agian galtzen ari gara lotsatien arteko harreman ezin ederrago bat. Superbia zazpi bekatu nagusien arteko nagusiena baita. Baina gero eta konbentzituago bainago benetan merezi dutenak pertsona apalak direla oso. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



"NAFARROAKO GOBERNUARENTZAT, PAI DA BIZITZA GUZTIRAKO ZIGORRAREN PAREKOA"

STEILAS SINDIKATUA

UPNk Nafarroan abiarazitako eta hezkuntza eragile ugariren kritikak jasotako PAI edo IIP Ingelesa Ikasteko Programa alboratzen lehena izan da Castejongo Dos de Mayo ikastetxea. Baina Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak adierazi du ez diola horretarako baimenik ematen. Nafarroako ikastetxe gehienetan PAI inposatu zutela eta orain irteteko aukera galarazi nahi dutela salatu du Steilas sindikatuak. Ikastetxeen erabakia eta autonomia errespetatzeko eskatu du: "Nafarroako Gobernuarentzat, PAI bizitza guztirako kartzela-zigorraren parekoa da: sartzen zaituzte inoiz ez atera ahal izateko". **2020/02/14**

EKONOMIAREN TALAIAN

Amiantoak zabortegian ere hiltzen du

JUAN MARI ARREGI

Amiantoaren erabilera Espainiako Estatuan 2002 urtera arte mantendu zen eraikuntzan eta enpresa askotan. 20, 30 eta 40 urte geroago milaka heriotza eragin ditu asbestoak, bai Europa osoan, bai Euskal Herrian: urtero hamarnaka heriotza atzematen dira gurean, egunez egun. 2018an soilik, 35 heriotza atzeman ziren, 2019an beste 30... Eta ezagutzen direnak %10 baino ez dira. Urtez urte, isilean, amianto hiltzaile horrekin kontaktuan lan egin zuten dozenaka langilek galduko dute bizia.

Amianto hiltzailea Zaldibarko zabortegi horretan ere agertu da orain. Bertan bi langile desagertu dira, eta enpresaren, Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa negargarria izan da. Eskandalu handia. Bi langile horien erreskatera joan behar izan zuten langile eta ertzainek zabortegi horretan amianto arrastoak bazeudenik ere ez zekiten. Eta desagertuek ere ez. Nork bere neurrian, denok dugu ardurarik lan-istripuen aurrean; baina kasu honetan, zabortegi horren kudeaketaren eta haren eraistearen benetako erantzuleak enpresa jabea, Aldundia eta Eusko Jaurlaritza dira.

Zaldibarko zabortegian erreskatera joan ziren langile eta ertzain horiek hiltzeko hautagaiak dira jadanik. Hemendik urte batzuetara gerta liteke hori, baina amiantoaren biktimak dira beraiek ere. Hil arte itxaron gabe, eta horrelakorik ez gertatzea espero dut, enpresak, Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak beharrezko neurriak hartu behar dituzte dagoeneko, langile eta ertzain horiek etengabe kontrolatuta egon daitezen. Era berean, enpresa kudeatzailearen erantzukizuna errukirik gabe aztertu beharko dute. Eta tragedia eta eskandalu hori ez eragozteagatik –edo eragiteagatik– erantzule diren arduradun politiko eta foralak kargugabetu behar dira. ●

ANALISIA

FOKU / ARITZ LOIOLA

Bost inporta izan zaie

URKO APAOLAZA AVILA

Zaldibarko luiziaren larrialdiari beste dimentsio bat eman dio amiantoa tartean izateak. Nahikoa dira 0,0001 zuntz/cm mesotelioma edo pleurako minbizia sortzeko, politikari arduragabe batzuek kontrakoa esan arren. Egiaz, "ezin izan da zehaztu amiantoarekiko esposizioak minbizi-arriskurik eragiten ez duen mailarik", Espainiako Laneko Osasun eta Segurtasun Institutuak berak aitortu duenez.

Eusko Jaurlaritzaren 49/2009 Dekretuak dio, hondakin ez-arriskutsuentzako zabortegi batean amiantoa uzteko, uralita eta bestelako materialak osorik eta hauts gabe egon behar direla, zakutan itxita eta plastikozko zorrotan "guztiz babestuta", eta ertzik gabeko tumulutan lurperatuta, puskatu ez daitezen.

Zaldibarkoak agerian utzi du enpresa berezituen eta zabortegien arteko kate horretan praktikan zein baldintzatan iristen zen materiala eta nola isurtzen zen: nahasita eta kontrolik gabe –garraiolari batek *Berria*ri esan bezala–. Bistan denez, zabortegia amiltzerakoan amiantoaren zuntzak nonahi barreiatu dira. Horrek sekulako arazoa ekarri du, eta okerrena dena, bi langileren gorpuak erreskatatu ezinik dabiltza orain, euren senideen sufrimendurako.

GURE "GORLEBEN" PARTIKULARRA

Verter Reciclyngek hiru urtetan 10.000 tona amianto jaso zituen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren arabera. Zaldibarkoa ez zen depositu arrunta. Milioi erdi metro kubo lur kutsaturik geratu dira luiziaren ondorioz. Nora eramango dituzte orain? Ulergarria da Mallabia edo Zallako herritarren haserrea, gure Gorleben partikularra bihurtzeko hautagai baitira –hondakin nuklearrak jasotzeagatik ezaguna da Alemaniako herria–. Edo akaso kanpora eramango ditugu hondakin arriskutsuok, Indiako itsasontzi-hilerrietara eraman izan diren gisan?

Euskal Herria puntu beltza da: Espainiako Estatura hamarkadatan inportaturiko 2,5 milioi tona amianto hutsen %10 hemen dago. 2040rako amianto horren bizitza baliagarria amaitu eta oso arriskutsu bilakatuko da. Orain arteko arduragabekeriaz kudeatzen badute, hondamendi gehiago etorriko direla esan beharrik ez dago.

Arduragabekeria hori ondo ezagutzen dute amiantoaren biktimek. Kaltea ez da azaltzen 40 urte geroago arte –ondoko zutabean Juan Mari Arregik esan gisan–, eta isiltasun hilgarri horrekin jokatu izan dute biktimak bigarren aldiz kondenatzeko labirinto judizial batera. Bitartean, enpresek inpunitate osoa dute.

Jarrera hori ezinbestekoa da ulertzeko Zaldibarren gertatutakoa. Irregulartasunak, kontrol falta, garbitu gabeko kamioiak, kutsadura neurketa eskasak, arduradun politikoen arinkeria arriskurik ez dagoela esanez... Amiantoaren arazoa bost inporta izan zaie, beraien arazo bihurtu den arte. ●

MOUSSA MAREGA

ARRAZAKERIA ETA TALDEKIDEEN BABES FALTA

PORTUGAL. Oporto taldeko Moussa Maregak, harmailetatik jaurti zizkioten irain arrazistak zirela eta, partidaren erdian zelaitik alde egitea erabaki zuen. Futbolari beltzek maiz sufritzen dituzte irain arrazistak. Gutxi batzuetan, arrazakeriari irmoki erantzuteko hautua hartzen dute. Eta, zer diren gauzak, hori egitean, jende ugarik esaten die ez duela kontra egiteak merezi. Hori gertatu zaio Maregari, jarrera negargarria erakutsi duten taldekideen aldetik. Behin eta berriz saiatu dira aldageletara bidean zihoanean Marega geratzen... Bakar-bakarrik utzi dute. Jokaldia borobiltzeko, arbitroak txartel horia atera dio.

INDAR ARMATUAK

200

guardia zibil gehiago eramango dituzte Nafarroara. Hala iragarri du Espainiako Gobernuaren ordezkari Jose Luis Arastik. "Herritarren segurtasunera" bideratuko dituela adierazi du.

1.700 agente inguru egongo dira, berri horiek gehituta. Eta "100 gehiago ekar litezke", gaineratu du Arastik.

Euskara doan ikasteko aukera, bi baldintza betez gero

ARABAKO ALEA

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako HABEko euskaltegietan B2 mailara arte euskara ikasten ari diren ikasleek ikastaroa doan egin ahal izango dute Eusko Jaurlaritzak, hiru foru aldundiek eta Eudelek hitzartutako akordioaren ondorioz. Ikasleek, baina, bi baldintza bete beharko dituzte: %75eko asistentzia bermatzea eta dagokien maila gainditzea.

AKORDIOA

A1, A2 eta B1 mailen kasuan, euskaltegien bidez maila egiaztatzen duten ikasle guztiek diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte, beti ere asistentzia baldintzak ere betetzen badituzte. B2 mailako ikasleen kasuan, berriz, HABEko azterketa gainditu beharko dute diru-laguntza lortzeko. Hala ere, irailetik aurrera maila guztietako ikasleentzat, B2koentzat barne, nahikoa izango da euskaltegiko maila gainditzea.

DIRU-LAGUNTZAK

Diru-laguntzak jasotzeko epeari dagokionez, 2020ko urtarriletik irailera arte A1, A2, B1 edo B2 maila gainditzen dutenek, abenduan jasoko dute laguntza. Zenbatekoari erreparatuz, ikasleak maila hori gainditzeko jarritako diru-kopurua itzultzera joko da, beti ere ikasprozesuaren kostuen baitan.

JOXE MARI AUZMENDI. Hik Hasiko koordinatzaile ohi eta pedagogia egitasmo horren sustatzaile nagusietakoa izan zena hil da. Azkaraten jaioa 1954an, iaz *Euskal Herrian erreferente diren pedagogoak* liburua argitaratu zuen. ARGIA astekarian iritzi emaile ere izan zen.

EUSKAL PRESOAK. Aske geratu dira Arantza Zulueta eta Jon Enparantza, Espainiako Auzitegi Nazionalak irailean ezarritako espetxe zigorra osorik bete ostean. 47 euskal herritarren aurkako 11/13 auziaren harira espetxeratu zituzten, aldeen artean lortutako akordioaren ondorioz.

USTELKERIA. Arrasateko Udalak onartu zuen lehiaketa barik, 18.000 euro ordaintzea Gipuzkoako EAJren kargu baten enpresari, karpa zerbitzu batengatik. Lehendakaritzako Memoriaren Institutuak 2016an udalari adierazi zion Montai taldea kontratatu zezala eta ordain ziezaiola, karpa zerbitzuaren truke.

MILIARRAK BANATUZ EROSI NAHI LUKE ERRUGABETASUNA SACKLER FAMILIAK
OPIOIDEEN GAMELUAK

Bizkarreko ala buruko mina arintzeko medikuak kontseilaturiko Oxycontin erremedioa hartu eta jonki bilakatu direnak milaka dira AEBetan. Geroz eta gehiago daude gurean ere. 1999 eta 2017 urteen artean, 400.000 ziren gaindosiz hildako amerikarrak. Sackler dinastia dugu sarraskia horren erantzule eta gaur egun 2.300 salaketa ditu bere kontra. Hamabi miliar dolarren truke, auzibideen abandonatzea proposatzen die auzi-jartzaileei. Denek ez dute onartu tratua.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Kapitalismo basatian aitzina egin ahal izateko ezinbestekoa den bihozgabekeriaren adibiderik onenen artean legoke Sackler familia. Arthur, Mortimer eta Raymond anaiak. Berriki arte Purdue Pharma farmazia laborategiaren jabe izandakoa. Jada zeuzkan miliarka dolarrei beste miliar batzuk gehitzeko, ehun milaka heriotz eragin dituen familia: 35 miliar dolarreko salmenta, 400.000 amerikarren heriotzaren truke. Opioidez osaturiko erremedioen gibelean gordetzen den familia dugu. "Sackler familia droga trafikante bezala epaitua izatea nahi dut", zion Max Rose AEBetako Kongresuko hautetsi demokratak duela urte zenbait. Auzibideen zerrenda luzea abiaturik da, ehunka salaketa dituztelako haien aurka. Testuinguru horretan argiratu berri dira haren jukutriak, *Opioid files* izenez ezaguturiko dokumentuetan.

Sackler dinastiaren berri eman zigun Pello Zubiriak, *OxyContin epidemia AEBetan: gure medikuak bihurtu gaitu jonki* izenburuko Net Hurbilean, iragan 2018ko otsailaren 25ean. Talentu handiko Nan Goldin argazkilariaren bizipenetik abiatu zuen erreportaia: "2014an Berlingo mediku batek gomendatu zion OxyContin ezkerreko eskumuturreko tendinitisa arintzeko. 'Lehenbizikoz errezetatu zidaten 40 miligramo hartzea eta izugarri eragin zidan, goragaleak, makalaldia. Denborarekin, ordea, egunean 450 mg behar nituen'". 1995tik aitzina hasi ziren merkaturatzen erremedio hori –ulertu, droga gogor baina legal hori–. Hogeita bost urte geroago, 2.300 salaketa dira familia horren kontra, gehienak hiri eta estatuek jarritakoak.

DEPENDENTZIA ARRISKUA GORDEZ

Ordura arte eritasun larriek ondorioztatu minak arintzeko baliatua zena, ohiko bilakarazi eta edonori ematen hasi ziren 1995ean, Food and Drug Administration egiturak medikamentua merkaturatzeko baimena emanik. Baimena emandako batzarraren buru zen Curtis Wrigh medikua Purdue Pharmaren zuzendaritzan sartuko zen bi urte geroago. Komunikazioari bideraturiko aurrekontua 187.500 dolarrekoa bazuten 1996an, 4 milioikoa zuten bost urte geroago. Inbertsioak anitzez gehiago ekarriko zuela bazekitelako. OxyContin izeneko botikak morfinarekin duen antzekotasuna gordetzea zuten lehentasun. "Morfina bezain 'eraginkorra' dela erakutsi dezakegu, baina morfina bezain 'azkarra' denik ez dugu erran behar" kontseilua jaso zuten marketin arduradun baten partetik. Zintzoki jarraituriko gomendioa.

Ederki funtzionatu zuen jukutriak: nahiz eta morfina baino bi aldiz azkarragoa izan, opioide ahulen multzoan sailkatu zuten, morfinatik urrun. Buruko, juntetako zein bizkarreko minak lasaitzeko banatuz, helburua bete zuen familiak: 1996tik 2000ra, 50 milioi dolarretik 1.000 milioi dolarrera igo ziren salmentak. Hiru miliar dolar ondorioztatu zituzten 2010eko salmentek. Sekula ez aski, "zer egin dezakegu salmentak oraindik gehiago bultzatzeko eta erritmo azkarragoz garatzeko?" galdetu zuen Richardek. Aterabideak milioiak ondorioztatu zizkion: beherapen kartak banatu zituzten, lehen bost ordenantzen botikak merkeago pagatzeko gisan. Horrela bihurtu ziren jonki – gaindosiz hiltzeraino– min bat arintzeko asmoz medikuaren etxetik pasatako milaka eta milaka. Erremedioak ondorioztatzen duen dependentzia gutxietsi izana leporatua zaie auzietan. Zailtasunekin gezurtatuko dutena, nahitara isildu zutelako elementu hori. Dependentzia keinuak "dosia emendatu beharraren seinale" zirela azaltzen zitzaien medikuei. Brandeisgo unibertsitatean opioideei buruzko ikerketa zentroan dabilen Andrew Kolodnyk oroitzen ditu gabezian zeuden pazienteak: "Baina sorpresa handiz, erran ziguten ez zela adikzioa, 'pseudo-adikzioa' zela. Opiazeo gehiago eman behar genizkien. 'Pseudo-adikzio' kontzeptua nahitara aurreratu zuten, opioideak sustatzeko". Kontua da minaren tratamenduan adituak diren American Academy of Pain Medicine (AAPM) eta American Pain Society (APS) egiturak ere diruztatzen zituela Purdue Pharmak. Eskandalua plazaratuko zuen eragilerik ez zen, guztietan zuelako familiak eskua –dirua– sarturik. Paraleloki, botiken merkatu beltzaren garapena geldiarazi ez izanaz ere akusatua da familia.

Dependentzia frogak gorde zitzazketen, baina nekez gordeko zituzten gor-

GAINDOSIAZ HILDAKOAK EGUNERO 130 AMERIKAR HILTZEN DIRA OPIOIDEEZ OSATURIKO BOTIKENGATIK. AEB-ETAN, HEMERETZI MINUTURO SORTZEN DA OPIOIDEEN DEPENDENTZIA DAUKAN ÑIÑI BAT; *HEROIN BABIES* DEITU OHI DIRA.

putz dependenteak eta gaindosiaz hildakoak. 1999tik 2002ra, minaren kontrako botikek ondorioztatu hildakoen kopurua %91az emendatu izanak argiratu zuen eskandalua. Gaindosiagatik bizia galdu dutenen zerrenda luzeegia da. AEBetan 200.000 daudela plazaratu zuen Zubiriak, bi urte geroago, doblatu egin da zifra ofiziala: 400.000 dira 1999 eta 2017 artean hildakoak, –horien erdiak medikuaren preskripzioari esker jasotako sendagailuengatik–. Denetarik dugu jonkien artean: klase sozial, jatorri, lanbide eta adin orotarikoak. Hogei urtez kontsumitzaileen profila aldatu bada ere, emakume zuriak dira lehenik hunkiak, klase ertain apalekoak eta baserri mundukoak. Bizirik darrai desmasiak: egunero 130 amerikarrek dute bizia galtzen botika horiengatik. Hemeretzi minuturo sortzen da *heroin babies* edo opioideen dependentzia daukan nini bat AEBetan.

DIRUZ, AUZIAK SAIHESTU NAHIAN

Lehenbizikoz pagatu behar izan zuen Johnson&Johnson laborategiak 635 milio dolarreko isuna 2007an. Orduz geroztik, ahal bezala isunak saihesten dabiltza. Eta, lortzen ere dute, diruak dakarren botereari esker. Auzibideak saihesteko gogoz, porrota aurkeztea erabaki zuen iazko irailean Purdue Pharmak. Salaketa jarri dutenei 10 eta 12 miliar dolar artean banatzea proposatu zien, –3 eta 4 miliar artean familiak eta beste 1,5 Mundipharma filialak ordaindurik–. Diru hori opioideen krisiari aurre egiteko neurrietara bidaratu litzatekeela zehaztu zuen. 27 estatuk onartu bazuten ere, beste 25ek errefusatu zuten. Laetitia James New Yorkeko prokuradorea haserre dago: "Bost axola dauka justiziaz Sackler familiak, porroskak banatu nahi dizkie biktimei".

AEBetako hemeretzigarren familia aberatsena da, 13 miliar dolarrekin. Justu epaiketak aitzin, zerga ihesa egin izana ere argiratu zen. Bihozgabekeria ez doa ttipituz belaunaldiz belaunaldi: Richardek, hau da, Raymonden semeak, opioideen menpekotasunari aurre egiteko botika bat patentaturik du. Paraleloki, Mundipharma laboratorioari esker, opioideen merkatua mundu mailara hedatzen dabil. Gurean, OxyContin ezagunaz gain, Sevredol, MST Continus,Palladone, Targin, Zytram, Sophidone, Sevredol, OxyNorm, Moscontin, Demerol, Dicodin, Penthrox edota Fentanyl botikek dute opioidea. ●

Arrate Corres

ARTISAU-PASTA EKOLOGIKO ETA TRADIZIONALA

“

TOKIKOTASUNA EZ DA KILOMETROTAN NEURTZEN, BOTERE HARREMANETAN BAIZIK

”

Kalitate handieneko pasta egiten du neba Igorrekin batera Andaluzian. Ez da nolanahiko asmoa: artisaua behar du pastak, ekologikoa errotak, tradizionala zerealak. Has eta buru, neba-arrebek zuzentzen dute prozesu osoa, hazitik dendarainokoa. 2014an hasi ziren oinez, eta nahiz makurka eta poliki hasieran, zutik dabiltza orain.

MIEL A. ELUSTONDO ZALDI ERO

2014an hasi zineten artisau-pasta ekologikoa egiteko bidean.

Paperak egiten! Baina, egiaz, hurrengo urte arte ez zen Italiatik jaso behar genuen prentsa heldu; artisau-pasta egiteko prentsa, esan nahi dut. Bitartean, errota diseinatzen jardun genuen, errota berezia, gari-semolaz egiten baitugu pasta, ez irinez, eta garia ere ez da edozein gari, gari gogorra baizik. Eta gari gogorra klimatologia jakin batean lantzen da, Mediterraneo aldean, dela Iberiar penintsularen hegoaldean, Italia hegoaldean, Afrika iparraldean... nahiz Aragoan ere lantzen den gari gogor hori. Baina Andaluzian hazten da ondoen. Esate baterako, Azkoien inguruan ere saialditxoa egin genuen, ekologikoa ekoizten duen laborari batekin.

Nafarroako Erriberan, beraz.

Bai, baina horko gari gogorraren kalitateak ez gintuen asebete. Aldiz, Andaluzian, Malagako Humilladeron, bertako landare autoktonoa dute gari gogorra. Betidanikoa. Bestalde, nire neba Igor jada Malagan bizi zenez, interesgarriagoa iruditu zitzaigun gure errota ere bertako lurretan eta ekoizleengandik gertu kokatzea.

Errota zeuek diseinatu zenutela esan diguzu.

Bai... Lehen, herri guztiek zuten bere errota, eta han eta hemen baziren irin-fabrikak ere. Baina orain gutxi dira, eta gero eta gutxiago, gainera. Esaterako, gaur egun, EAEn irin-errota bakarra dugu, Kanpezun (Araba), eta Nafarroan ere hiruzpalau gelditzen dira, eta, horietako bat, talde handi baten baitakoa da. Semolari dagokionez, are eta kontzentratuago dago hori: Espainiako Estatuan zazpi semola-fabrika daude, instalazio handi eta modernoak dira, eta hori ez da, berez, txarra, baina esku gutxitan kontzentratuta daude, eta hori bai, arazoa da.

Fabrika handiak dira nagusi.

Bai. Gu, esate baterako, ez gara txiki-txikiak, aski ekoizten dugu, baina gu ez gara iritsiko, geure bizitza osoan, haiek astebetean egiten duten semola kopurua ekoiztera! Jakina, guk askoz ere semola osoagoa egiten dugu, artisau erara, eta lurrari lotutakoa. Ekologikoa egitea ez da nahikoa, gure ustez. Tokikoa behar du. Orain boladan dago zera hori, “0 km”,

Arrate Corres Velasco

GASTEIZ, 1981

Albaitaritza ikasketak egina, Ekuadorren izan zen urtebetez, nekazarien mugimenduarekin bat eginik, Nekazarien Unibertsitatean. Hantxe ekin zion nekazaritza ez-industrialari aztertzeari, eta egonaldiak erakutsi zion oraingo bidea. Itzuli eta Mugarik Gabeko Albaitaritza GKErekin jardun zuen lanean, elikadura burujabetzan, oroz gain. Agroekologia masterra egin zuen Baezan (Jaén, Espainia) eta, geroago, Spiganegrari lotu zitzaion nebarekin batera. AIKB (Arrate, Igor, Korres, Belasko) Ekoerrota du izen juridikoa, euskararekiko loturari eutsiz. Goren kalitateko pasta egiten dute Andaluzian, eta Euskal Herrira ere heltzen zaigu.

baina beste bat da koska: tokikotasuna ez da kilometrotan neurtzen, botere harremanetan baizik.

Hara, bestea!
Gure inguruan botere handiko enpresa edo entitate batek hartuko balu gure semola, "0 km" esan ahal izango luke, baina zein botere harreman sortu da tarte horretan? Edo guk lurrarekin batere kontakturik izango ez bagenu, batek daki nondik hartuko bagenu zereala... zein botere harreman gertatuko litzateke bitartean? 0 km-tik harago joan behar da, botere harremana da garrantzizkoa. Guk, adibidez, kontsumitzaileak ditugu Andaluzian, Valentzian, Madrilen, Euskal Herrian... Tokiko denda askorekin lan egiten dugu, eta gure arteko botere harremana horizontala da, ez dugu bata bestea estutzen. Greba orokorra izan da duela gutxi, eta harira datorrela uste dut: bizi baldintza duinak behar ditugu toki guztietan, eta guztientzat. Katebegi guztien artean zaindu behar dira botere harremanak, kate motz bat lortzeko.

Zeuen esku duzue pasta egiteko prozesu osoa.
Bai, esaterako, lehengo hilean erein genuen zereala, eta neure buruari esan nion: "Oraintxe hasi da hurrengo urteko pasta sortzen!". Guk ez dugu lurrik, baina Maximo eta Juan Rodriguez anaiekin ari gara lanean hasieratik. Ortuariak lantzen dituzte batik bat, baina haien errotazioetan sartzen da gure zereala. Oso lur onak dituzte, kalitate handiko ekoizpenak eskaintzen dizkigute, gertuko harremana... eta haiek ere badakite ereiten hasi orduko saldua dutela uzta. Bi aldeoi interesatzen zaigu harremana.

Banaketa eta salmenta ere zeuen lanaren bizkar da.
Hasieran gauzak modu batera etorriko direla uste duzu, baina bideak berak erakusten dizu. Asko ikasi dugu. Niri dagokidanez, kooperaziotik nentorren, garapenerako hezkuntza lanetatik, gobernuz kanpoko erakundeetatik, landa dinamizaziotik... eta, nolabait esatearren, banaketa demonizatuta genuen. Horretan hasi ginenean, berriz, jabetu nintzen botere harremana dela gakoa. Alegia, jabetu ginen ezin genuela dena geuk egin, bidaideak behar genituela, baita gure ekoizpenen banaketan ere. Botere harremanik ez bada, berdintasunezkoak baldin badira, ondo da. Soilik herrian saltzea litzateke egokiena, baina bizi beharra dago, eta horretarako, han eta hemen zabaldu eta banatu beharra dago gure ekoizpena. Elkarlanean jardun beste biderik ez dago.

Zer diozu kontsumitzaileaz?
Kontsumitzaileak kontziente izan behar duela esaten da, eta egia da, baina aldaketa ez da hortik soilik etorriko. Hain-

bat kontsumo elkarte daude, ekoizleekin lotura dute, konpromiso indartsua ere bai, abanguardia dira, baina abanguardia horrek bakarrik ez digu bizigarritasunik ematen, ez dio gure sektoreari bizigarritasunik eskaintzen. Kontsumo elkarteetan ere bistakoa da joera: gai edo ekoizpen ekologikoen kontsumoak sekulako gorakada izaten du lehenengo urteetan, baina handik laster gelditu egiten da kontsumo hori. Elikagaien eraldaketan lanean ari garen sektoreari erantzuteko, kontsumo kontzientea behar da, baina guk geure ekintza onuragarria dela baldin badakigu, zergatik ez gureganatu kontsumitzaile guztiak? Hazi egin nahi dugu, hazi, baina egungo ikuspegi hegemonikotik aparte. Hazi, eredu agroekologiko guztia, ongizate eta aberastasun hori, gizartean zabaldu ahal izateko. Hazi, baina harrapari jardun gabe.

> ***"Gauza negatibo asko entzuten dira Andaluziari buruz, baina hango dinamika sozialak ikaragarriak dira"***

Albaitari zara. Neba, berriz, ingeniari. Laborari lanean buru-belarri ari zarete Humilladeron (Malaga, Espainia).

Gaztetan, neba ingeniaritza ikasketak egiten hasi zen. Ez zuen aurrera egin, ordea. Gero, krisia etorri zenean, lan eskasia eta hau eta hura, berriro heldu zien ingeniaritza ikasketei, eta bukatu egin zituen. Nik albaitaritza ikasi nuen. Ekuadorren urtebeteko egonaldia egin nuen, hango nekazaritza munduan, elikadura burujabetzaz ohartu nintzen, agroekologian sakondu nuen gero... Bestalde, arabarra naiz, eta zerealari begira bizi nintzen. Ikusten nuen zereala bazegoela, baina ez zegoela soroko zerealetik produktu jangarri batera heltzeko modurik. Errotarik ez zegoela ere konturatu nintzen. Aldi berean, neba ikasketa amaierako proiektua egin beharrean zen, eta pastari begira jarri ginen.

Zergatik pastari, hain zuzen?

Italian bizi izan naiz, etxean jatun onak gara, pasta kontsumitzen genuen, ekologikoa, baina jabetzen ginen industriala zela, "bio" zigilua zuen, baina industriaren logikari segitzen zion pastak, ez zitzaigun ideologikoki gustatzen, ezta gastronomikoki ere! Eta semola aztertzen eta proiektua garatzen hasi ginen neba eta biok. Semolaren industria guztiz kontzentratua dagoenez, inork ez zigun berririk eman nahi, harik eta iringileekin harremanetan jarri ginen arte. Horrela, kontaktua egin ahal izan genuen Lleidan (Herrialde Katalanak) Agramunt herriko Roca Fariners irin-fabrikarekin. Gure mundu hau oso maskulinizatua da, baina emakumezkoa zen hango nagusia! Etxeko ateak ireki zizkigun! Gero, Valladoliden (Espainia) beste iringile batekin kontaktatu genuen. Jubilatua zen, baina bazuen eskarmentua. Gure errota abiarazi baino lehen hil zen iringile hura! Nebak diseinatutako sistema ikusi eta ulertu zuen, eta egingarria zela esan zigun. Eta abiatu ginen! Hasieran, ez genuen batere asmatu... asmatu genuen arte! Bost urte honetan asko ikasi dugu, asko dugu ikasteko oraindik, baina aurrera egin dugu, eta pozik gaude. Gaur egun, kalitatezko ekoizpena lortu dugu. Itsusia da neuk esatea, baina harro gaude egiten dugun ekoizpenaz, kalitatezkoa da.

Hasieran ez zenutela batere asmatu esan duzu.

Hondamendi hutsa izan zen. Gogorra izan da, lan asko, ate itxi asko ere bai bidean... Elikadura ez dago batere baloratua, kontsumitzaileak ez du ikusten ekoizpen baten atzean dagoen lana. Bestalde, elikagai industrializatuak diruz lagunduta daude, eta prezio txikian heltzen dira dendara. Eta jendeak prezioak konparatzen ditu, baina konparaketa hori ez da justua. Artisau-pasta ez da garestia. Bai, zigilu handi batena baino garestiagoa da, baina zer dago zigilu handi horren atzean? Kiloko pakete horiek ikusi eta... horien prezioa baino gehiago pagatzen dugu guk garia! Eta pasta egiteak bi eraldaketa ditu: errotako lana da bata, pasta bera egitea da bestea!

Zeuk egin duzu galdera: "Zer dago zigilu handi horien atzean?".

Esplotazioa. Pertsonen esplotazioa, edo naturarena. Ez da besterik. Merkatu hegemonikoak zigilu ekologikoan jarri du begia, eta kontuz! Gaur egun, niretzat, ekologikoa izatea oinarrizkoa da, dekretuz bete beharko litzateke, baina harago jo behar dugu. Azken aldian, ekoizle ekologikoek lan ikaragarria egin dute. Orain, berriz, bertan sartu da industria, eta aurreko langile haien lana zapuzteko arriskua dago, eta ez da justua.

Zer eman dizu joan deneko dozena erdi urte honetan egin duzuen bideak?

Gauza asko! Oso jende interesgarria ezagutu dugu, ateak ireki dizkiguna, laguntzeko prest izan dena beti. Jende hori. Lana beste modu batera egiten ere ikasi dugu. Lana da, nekea, estresa, baina bestelakoa. Izerdia ere bestelakoa da, nahiz benetako izerdia den. Nork esan behar zidan niri duela urte batzuk, hogeita bost kiloko zakuak hartuta ibiliko nintzela! Horrela daukat bizkarra ere!... Bide honetan, pertsonak gauzak zergatik egiten dituzten ikasi dut. Askotan oso erraza da juzkua, auzoa juzkatzea. Hasi eta buka norberak sortu behar duenean, besteren lana preziatzen ikasten duzu.

Nola bizi duzu oraingo momentua zeuen lanean?

Ez da momentu txarra. Alderantziz, esango nuke. Ikusten dugu egin dugun lan eta esfortzuak emaitza ematen ari direla, nahiz eta ziurgabetasun garaia ere bizi dugun. Saltoki txikiak dira gure salmenta puntuak, eta krisia bizi dute. Hor dira saltoki handiak, Amazon eta gisako plataforma digitalak... baina kontsumitzaileak ere saltoki txikian jarri beharko luke kon-

TRADEBI
TRANSLATION
tradebi@tradebi.com

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu
SIGACUS
✆ 943 453 588 · www.sigacus.com

fiantza. Bestalde, elikagai ekologikoetan ari garela, Europa jarri ohi dugu eredu, baina Frantziara joan eta ez dago saltoki txikirik, eta gure jarduera ereduarentzat ezinbestekoak dira! Baina dena kontzentratuta dago! Hori horrela, gu bezalako ekoizleek ez dugu hor tokirik, ez laborari txikiek, ez abeltzain txikiek, ez inork! Ondo ari gara, baina beti beldurrez: ziurgabetasuna! Nominarik ez.

Hileroko soldatarik ez...

Ez, bada! Askotan esan izan dugu lagun batek eta biok: "Garai batean, gure nomina txikia zen. Baina hortxe zegoen hilero! Zer edo zer zen! Orain ez dakigu noiz eta zenbat jasoko dugun!". Ziurgabetasun horrekin bizitzea ez da erraza. Hargatik esan izan dut artisau-pasta ekologikoa egiten hastea erabaki genuenean inkontziente hutsak izan ginela. Pertsonalki, hobeto bizi gara: eredu agroekologikoaren barruan bizi garenez, badakigu bizitza jarri behar dugula erdian. Hala ere, urte hauetan ezin izan dugu hori bete, hamaika lan lehenetsi ditugu, gure bizitzaren aurretik.

Autoesplotazioa.

Bai, eta hori ere gogoeta-gai izan beharko litzateke. Gizarte prekarizatuaren ondorio da hori. Gure elikagaien kasuan, prezioa merkatu beste erremediorik ez duzu, baina noraino merkatu? Eta duintasuna? Elikagai ekologikoak luxuzkoak direla esaten dute batzuek. Aditzen da hori ere. Kontzientzia duten taldeetan aditzen da: "Justua izan behar da, eta demokratikoa". Eta neure buruari galdetzen diot: "Zer da 'demokratikoa'? Nik, laborari naizen honek, neure burua autoesplotatzea zuri prezioa merkatzeko?". Kontsumo justua aldarrikatzen dugu, baina ez dugu lortzen egoera zaurgarrian den gizarte sektorea gureganatzea. Zer edo zer gaizki egiten ari gara. Demokratizazioa ez da, bakarrik, elikagai baten prezioan neurtzen. Prezioaren gorabeherak laborari askoren autoesplotazioa ekar dezake, edota proiektu asko desagertzea. Bost urte dira hasi ginenetik, eta hainbat jende hasi zen gure garai berean... Bost urte eta gero, bidean gelditu dira gehienak. Zortea izan dugu, gure senideek sostengua eman digutelako.

Eta zer diozu Andaluziaren gainean?

Sekulako potentzialitatea duen lurraldea dela. Gauza negatibo asko entzuten dira Andaluziari buruz, baina hango dinamika sozialak ikaragarriak dira. Subbética Ecológica izeneko elkarte bateko kide gara, ekoizpenen banaketa da asmoa, baina bertako jendearen dinamika ikusteko ere balio izan digu haiekin lotzeak. Euskal Herrikoa ez bezalakoa da egoera Andaluzian, prekarioagoa da, eta horrek gauza asko egiteko prestutasuna eman die bertakoei. Egin behar dela? Bada, egiten da! Beldur gutxiago dute ezertarako, eta, egia da, galtzekorik ez duzunean, errazago duzu egin behar duzuna egitea. Marinaleda da adibide.

Hara, Marinaleda!

Ikonoa da Marinaleda, baina hango dinamika bera gauzatu dute beste hainbat tokitan, batere zabaldu ez bada ere, eta, are, dinamika hori ezkutatu nahi izan bada ere. Botereak ez du nahi horrelako dinamikarik lau bazterretara zabaltzea... Emakume batekin hizketan, kontatu zidan nola lursail bat okupatu zuten, nola egunero haurrak hartu eta hamabi urtez joan izan ziren sailak okupatzera. "hamabi urtez!", harrituta, nik. Eta berak: "Ez genuen ezer eta! Zer egin behar genuen, okupatu ez besterik?".

"Galtzekorik ez", esan duzu arestian...

Bai, bada. Maximok [Rodriguez] kontatzen du 13-14 urterekin Nafarroara etortzen zirela lanera gurasoekin, zainzurietara. Nafarroatik Frantziara jotzen zuten, hango soroetara, beti lanean. Eta beti lanean, jornalero, eta beti pobre. Egoera horretan, justiziazkoa da lurra okupatzea... Maximok hori kontatzen duenean, neure baitan pentsatzen dut: "Zer ari nintzen ni 14 urte nituenean?". Garai hartatik hona egoerak onera egin du, baina egiturazko arazo handiak ditu oraindik Andaluziak, eta Madril zentrismoak min handia egiten die, min handia. Hedabideek, berriz, hara eta hona mugiarazten dute jendea. Oso zanpatua dago Andaluzia, oso-oso zanpatua... ●

bat

Soziolinguistika aldizkaria

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA ETA GLOTOPOLITIKA ALDIZKARIA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA.
Martin Ugalde K.P. / 20140 - ANDOAIN
kluster@soziolinguistika.eus
bat@soziolinguistika.eus
http://www.soziolinguistika.eus/bat

harpidetu edo oparitu

URTEAN 40 EURO

www.soziolinguistika.eus/bat/harpidetza

943 592 556

BAT 113: TXILLARDEGI-HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK (2019)

BELEN URANGA > Hitzaurre gisa.

MIGUEL GALICIA LAMBARRI > Ebaluazioa: euskararen aldeko ekimenen labirintoan orientatzeko gakoa.

JON FERNANDEZ SAN MARTIN > Ondarroako nerabeen hizkuntza ohiturak sare sozialetan. Kode alternantzia eta erregistroak.

XABIER MADORRÁN DE LA IGLESIA > Teknologia berriak eta hizkuntza gutxituak: ikt-en eragina euskaran.

JOSU OZAITA AZPIROTZ > Etnografia euskararen kultur aniztasunean: hemen da iragana ala etorkizuna.

LAURA ALBERDI ZUMETA > Eta hik zer uste dun/k? Azpeitiko gazteak hitanoaren inguruan hizketan: usteak, balioak eta diskurtsoak.

LANDER MUÑAGORRI GARMENDIA > Zergatik kantatu euskaraz? Euskal abeslarien hizkuntza hautua 2010eko hamarkadan. Izaro, Huntza eta En Tol Sarmiento musika taldeen kasuak.

Desparekotasuna ala indarkeria?

IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLEA

Begirada ohitu egiten omen da indarkeria ikustera. Maiz, gaztetxoek eskuragarri dituzten bideo-jokoetan, telesail eta filmetan, telebistako notizietan... Nonahi agertzen diren eta oharkabean barneratu ohi ditugun bortxazko irudiak askotarikoak dira. Haatik, bada indarkeria fisikoaz gain bestelakorik ere, begi-bistakoa ez dena, isilekoa, minsorra, baina sakoneko zuloa uzten duena.

Urte honen hasieran, Oxfam erakundeak mundu osoko desparekotasunak azaleratzen dituen txostena argitaratu zuen. Bertan, hainbatetan aipatu diren mundu osoko aberastasunaren banaketan dauden desoreken datuak aipatzen dira. Hala ere, desoreka horietan zaintza lanek hartzen duten protagonismoa azaleratu nahi izan du ikerlanak. *Zaintzarentzat denbora*, titulu horrekin aurkeztu du erakundeak aipaturiko txostena. Munduan, zaintza lanei dagozkien eta ordaindu gabekoak diren 12.500 milioi ordu estimatu dira, eta kalkuluen arabera, gutxienez, 10,8 bilioi dolarretako ekarpena egingo liokete ordu horiek guztiek ekonomiari, lanorduak dirutan jarriko balira. Gai honen inguruan ohikoa den datua ere azpimarratzen du txostenak: ordaindu gabeko zaintzaren hiru laurdenak, eta ordaindutako lanaren bi herenak emakumeen gain daude.

Norbere etxeko lanez gain, etxez etxeko langileen egoera ere aztertzen da.

> Badira jendartean bidegabekoak diren praktiken bidez mendean hartuta dauden kolektiboak, eta, oro har, normalizatutako egoerak bailiran jokatzen dugu

Dirudienez, mundu osoan egoera horretan dauden hamar lagunetatik batek bakarrik du lan legediaren babesa. Are gehiago, lanordu mugari dagokionean, langileen %50 baino gehiagok ez omen du estaldurarik. Zinez datu dramatikoak direla ezin uka daiteke, bereziki, etorkizunari begira aurreikusten diren datuek osasun zerbitzuak sendotzea eta gizarte zerbitzuen hobekuntza beharko direla azpimarratu dutelako. Izan ere, Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera, 2030ean 1.000 milioi pertsona nagusi eta 6-14 urte bitarteko 100 milioi haur gehiago egongo dira.

Gu ere munduko estatistika horien parte gara modu batera edo bestera. Jakina da zaintzaren alorrean dabiltzanen aldarrikapenen oihartzuna nabarmena izaten ari dela azken garaiotan. Bizkaiko egoitzetako olatu berdeak sortutako bulkadak ekarri du hein handi batean Gipuzkoako zahar-etxeetako langileen greba, eta etxez etxeko lanetan dihardutenen gehiegizko lanorduak eta hainbat kasutan jasotzen dituzten soldata iraingarriak ere plazaratu izan dira komunikabideetan.

Emakume eta gizonezkoen arteko soldata arrakalaz hitz egin da hainbatetan, eta baita lan baldintza duinak izatearen eskubideaz ere. Oxfamek argitaratutako txostenak argi adierazten du hau guztia. Dena dela, mota honetako datuak esku artean ditudanean, hainbatetan, Pierre Bourdieu soziologo frantsesak planteatutako indarkeria sinbolikoaren ideia datorkit burura. Badira jendartean bidegabekoak diren praktiken bidez mendean hartuta dauden kolektiboak, eta, oro har, normalizatutako egoerak bailiran jokatzen dugu. Ez dira indar fisikoaren eraginagatiko markak ikusten, baina ez da enpatiazko esfortzu handirik egin behar modu internoan kontraturik gabe hamalau orduko lanaldiak egiten dituen pertsonak jasan ditzakeen egoerak ulertzeko. Urtarrilaren 30eko greba orokorrean oso presente izan ziren egoera honetan dauden lagunak, eta gerturatzen ari zaigun martxoaren 8an ere protagonismoa izango dute zalantzarik gabe. Izan ere, kontrakoa esaten duenik bada ere, aldarrikapen hauek guztiz ulergarriak, justifikatuak eta arduratsuak dira. ●

Zientzia-fikzioaren beharra



PAULA ESTÉVEZ

KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
IDAZLEA

Klima aldatzen ari zaigun garai honetan –edo hobeki erranda: klima eraldatzen ari garen garai honetan–, etorkizun sozio-ekonomiko-politikoa iragarri gaitza eta iluna iruditzen zaigun une honetan, jende arteko elkartasunak maiz porrot egiten duen momentuan, galtzen ari gara elkarren kontrako kontakizun zientifiko-filosofiko-soziologiko-politikoen artean, bakoitzak ikuspegi berezia daramala munduaren martxaz eta giza bizitzaz.

Oraindik indarrean daude, nahiz eta bakoitza ez hein bereko itzalarekin, sistema kapitalistak eta komunismoak bultzatu narrazioak, mundializazioarena eta artxipelagoena, independentistena eta anarkistena, patriarkatuarena eta feminismoarena, eskuindarrena eta ezkertiarrena. Berrikiago agertu dira besteak, hala nola kolapsologiarena, *survival* -tzaileena, eta abar, gisa batez lehenengoak moldatzera behartzen gaituztenak.

Pertsona asko bizi da kontakizun arrunt ezberdin horien artean iritzi koherenterik ezin eginez, eta ondorioz gertakariak jasanez, modu etsituan. Jende frankok ez du denborarik hartzen gogoetatzeko gizakiaren ekintzen zentzuaz, ez eta bere burua gerorantz proiektatzeko. Ene inguruan ikusten dudanez, ezaxolakeria da nagusi, eta hori da familia askotan transmititzen den jarrera: gizartearen eta munduaren harat-honatak azaltzen saiatzen diren kontaketen oihartzunak ezagunak dira, eskolen edo militanteen lanei esker, baina ez da horien barnatzeko tirria fermu eta iraunkorrik izaten, ez eta, logikoa dena, kontakizun baten edo bestearen haritik kontzienteki engaiatzeko isuririk nabarmentzen.

Uste dut, jasankor eta etsitu gelditzeko joera arin hori areagotzen ari dela egungo gizartean, galduak garelako klima beroketak dakarren apokalipsia posiblearengatik. Anitzek ez du interesik ez etorkizunarekiko, ez eta iraganekiko, orainaldiak nahasiegia dirudielako. Nola jokatu? Hobe bizitzaz kontsumo moduan horditu, oraindik baimendua zaigun bitartean, eta geroak geroko? Ala katastrofe orokorraren aitzinean prestatzea gure buruak, erreserbak eginez, harresiak eraikiz edo oasi bat sortuz bazterreko toki batean? Ala teknologia berriek eta energia berriztagarrien erabilera orokortuak lekarketen salbamenean sinetsi?

Literaturak badu hor premiazko rola jokatzeko, gai delako gorputzik gabeko kontakizun zientifiko-filosofiko-politiko idorrak haragitzeko eta janzteko, hots, arartekoa egiteko funtsezko jakitate-arloaren eta ekintza-eremuaren artean. Bereziki, uste dut zientzia-fikziozko idazlan gehiagoren beharrean gaudela. Ez ohiko moduan, ez sinetsarazteko *happy few* zenbaitek bakarrik salbatuko dutela beren burua espazio-ontzi bati esker, ez sinetsarazteko etorkizun bakarra dela mundu gerra izadi pozoitu baten hondarren artean. Baliteke tokia izatea datu zientifikoak dituen zientzia-fikzioarentzat –anglosaxoiek *hard science-fiction* deitzen dutenaren antzekoa–, gogoeta filosofiko, politiko eta etikoetan ere oinarrituko litekeena, modu sinesgarrian eta errealistan frogatu liezagukeena salbamen kolektiboa posible dela –ala ez–.

Zientzia-fikziozko literatura horrek espirituak zorroztu litzake eta irudimenak zabaldu, oinarri sendoetan finkatuz. Euskaraz guti garatua den saila da zientzia-fikzioa, baina mereziko luke izatea, ene gustuko azaldu ditudan ezaugarriekin: etorkizun probableak marraztuko lizkiguke, norabideak proposatuz sail ezberdinetan. ●

Gondratarrak

MANOL ALVAREZ
IRAKASLE OHIA

Familia bat baino ez dira gondratarrak, beste anitz familia bezalakoxea. Euskal gatazka deritzonak pitzadura sakona eragin omen zion bere baitan, senide batzuk alde batean eta enparauak, berriz, bestean geratu zirelarik. Borja Ortiz de Gondrak antzerkia maite zuen, eta infernutik ihes egitea deliberatu, besteak beste, Taliaren erresuman murgiltzeko asmoz.

Urte mordoxka borondatezko atzerrian eman ondoren, sentitu ei zuen gaiaz idazteko grina. Emaitza bi antzezlan izan dira: *Los Gondra* (*Una historia vasca)* eta *Los otros Gondra (Relato vasco)*. Biak ala biak erdaraz. Biek ala biek Madrilen kritika eta publiko arrakasta handia lortuz, baita sariren bat ere. Madrilen euskal gatazkari buruzko antzezlanak arrakasta erdiestea ez da aterik egokiena Euskal Herriko antzokietara sartzeko. Horregatik, lanetatiko lehena ez bide zen antzeztu gurean. Bigarrena, aldiz, Bilbon eta Gasteizen ikusteko aukera izan dugu, bederen. Mesfidati, Arriagaratu egin nintzen, hainbat arrazoik bultzatuta: egilea bera ezagutu nuen gaztetan; familiako besteren bat ere ezagutzen dut; Iñaki Salvador, Jon Maya, Lander Otaola… talde artistikoko kideak dira; aktore nagusia, Sonsoles Benedicto, oso gogoko dut… Gustatu egin zitzaidan edukiari dagokionean, alderdi formala ere ahantzi barik. Zerga iraultzailea, atentatuari beldurra, erbestea, jazarpen poliziala eta abar agertzen dira. Egilea saiatzen da bi aldeetako zioak eta sufrikarioak erakusten, ene iritziz, alde batekoak argiago gelditzen badira ere, ziur aski hoberen ezagutzen duena delako. Bere buruarekin eztabaidatzen du ahaztu edota barkatu beharraz. Aukera kontrajarriak bezala agertzen ditu. Badirudi ez dagoela besterik. Azkenean, barkamenaren alde jotzen du, baina ez komentzimendu osoz nonbait.

Ez da ezer ahaztu behar. Herriak memoria behar du izaten jarraitzeko, eta gaizki eginetatik ikasteko ere bai. Baina, barkatu? Maiz mintzatu da horretaz urteotan. Batzuek besteei inposatu nahi diete barkamena eskatzea; eurek, aldiz, ez ei dute ikusten inolako beharrik barkamenik eskatzeko, nahiz eta mina elkarri egin diogun eta biktimak bi aldeetan dauden.

Gertatutakoaz solastatzea da ezinbestekoa, elkar ezagutu eta elkarri entzun, *de facto* hainbat forotan jada egiten ari den bezala. Hortik sortzen dira berez adiskidetzea eta elkarbizitzaren hobetzea. Ez da behar ez ahaztu ez barkatu. Aski da norbere burua ireki eta bestearen egia ere ezagutzea. Antza, Borja Ortiz de Gondra ere norabide horretan dabil bogan. Ongietorria. ●

Patris et Filii

ITXARO BORDA
IDAZLEA

Ametsa da, zinez, aita-ama ospetsuen bihotzetan, haurrak beraien bidetik jarraitzen ikustea. Aitarengandik semearenganako ildoak hobesten dira denetan, halaber gurean: aski dira izen batzuk irakurtzea errealitateaz jabetzeko. Aitaren aurka, amaren alde, sekula ez etxekalte... Bidenabar, hainbat gaizto umerik ez duten miserable eta bekaitzentzat!

Patri Friedman amerikar prospektiba egile amerikarraren aitatxia gizon famatua zen. Miltonek (1912-2006) edo familiakoek zioten bezala, *Miltiek* 1950-1970 urteetan *Chicago Boys* delakoak hezten zituen bertako unibertsitateko sotoetan eta 1976an ekonomiako Nobel Saria eman zitzaion. Mutilek, munduan zehar, neoliberalismoaren onurak hedatu zituzten, herrialde demokratikoetan botere militarrak jarriz edo katastrofe natural zein politikoen karietara berregituratze estruktural plan bortitzak martxan emanez, *National Defence Fund*-aren (NDF) lagungoarekin!

Semebitxi *libertarianoak* ere ideia handiak ditu. Aitatxik bakartu jendeak, lurra utzi eta itsasoan uharte bakunetan bizirautera gonbidatzen ditu, sendia bakoitzak berea, estatuaren begi-bistatik urrun, aberatsenak beti pobreziaren auzunetik eta airearen kutsaduratik libre.

Aitarengandik semearenganako endogamia. ●

Supermilitantea lurperatu

KIMETZ ARANA BUTROE
BARATZEZAINA

Saltseroa, konpromiso handiko pertsona edo supermilitantea, herri guztietan bada halako jendea eta horrelakoak izan gara gu ere. Ukatua den herri baten parte sentitzen ginen eta gauzak aldatu nahi genituen. Naturalki hasi ginen hemengo asanbladatan, hango grebetan zein besteko manifestazioetan; eta naturalki eman genion ere gure indar eta denbora amesten genuen aldaketa bultzatzeari. Gatazka armatuaren azken hamarkada zen.

Azken aldian, garai haiez mintzo ziren hainbat lagunekin izan naiz: ez hain gazteek nostalgiaz, garaiko pasioari erreferentzia egiten zioten; orduko konpromisoaz eta epikaz liluraturik ari ziren berriz gazteagoak.

Ilegalizazio, atentatu, atxiloketa eta herrian sortu nahi genituen bilgune eta ekimen berrien zurrunbiloan oroitzen dut garai hura. Ezagutu genituen pertsona berriak eta haiekin mamitu ideiak. Pasatu ziren alaitasun-larritasunak, bizi arrakastak eta egin gure akatsak. Hala ere, orain atzera begiratuz, ez dut uste orduko jardunbideak guretzat zein gure erakundeentzat hain onuragarri izan zirenik.

> Nago ez ote genukeen hobe gure barruko supermilitantea lurperatu, norbere burua orekatu eta taldeetan parte hartzeko ditugun erak aldatzea, gidaritzak garai hura bizi izan ez zutenei utzita

Helburu kolektiboa lehenetsi genion helburu pertsonalari eta denbora luze eman genion militantziari. Inongo lanetan ikasiko ez genituen trebetasunak geureganatu genituen, gustura egin genuen eta aberasgarria izan zen. Baina pertsonalaren eta kolektiboaren arteko desorekan hazi ginen.

Kanporako begirada asko landu genuen baina gutxi barrukoa. Aktualitateari erantzun beharraren beharraz, gai-zerrenda amaigabetako eztabaida azkarretan, herrian publikatu beharreko deialdi edo mezuen produkzioan zentratu ginen. Ez genuen ikasi ordea taldean ikuspegiak konpartitzen, ekimenak elkarrekin eraikitzen eta lagun baliotsuak galdu genituen bidetik.

Eutsi genion eta aukera berriak irekitzeko gai izan ginen, baina esango nuke orain posible dela gureak baino osasungarriago diren militantzia ereduak garatzea.

Besteen artean: pertsonalaren eta kolektiboaren arteko oreka zainduz, denbora laburragoa hartuz eta jende gehiagori parte hartzeko aukera zabalduz. Arlo batzuk *slow* erritmoan eztabaidatuz, sakondu eta ekinbideak eraikitzeko denbora hartuz. Talde lanean ikasiz eta ahots gehiagori toki eginez. Burua bakarrik ez eta gorputza ere landuz, sentimenei eta sormenari toki emanez...

Horretarako, nago ez ote genukeen hobe gure barruko supermilitantea lurperatu, norbere burua orekatu eta taldeetan parte hartzeko ditugun erak aldatzea, gidaritzak garai hura bizi izan ez zutenei utzita. ●

Hondamendia Zaldibarren

HERRIAN ZABORTEGIAK DEBEKATZETIK, HAMARKADAKO KRISIRA

Nahi beste sinbolismorekin, 50.000 tona hondakin biltzen dituen zabortegi toxikoa amildu da Bizkaia eta Gipuzkoa artean. Bi langile desagerrarazi, autopista moztu, sutea piztu, irregulartasunak agerian utzi eta inguruetan hodei gaixotzaileak zabaldu ditu, besteren artean. Instituzioen kudeaketa politikoa jo-puntuan jarri du, Eusko Jaurlaritzak 40 urtean izan duen hegemonia krisirik handienean EAJ eta PSE murgiltzeraino.

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

Lehen egunetan informazio falta oso nabarmena izan zen, eta ondoren, oso mugatua izaten ari da –otsailaren 15a da, milaka lagun daude batuta Eibar, Ermua eta Elgetatik hiru zutabetan sutan dagoen zabortegiaren altzoan–. Egunetik egunera izan ditugun berriek, lasaitu baino, kezka areagotu digute. Horregatik, instituzioei exijitu nahi diegu informazio zehatza eta gardena eman diezagutela. Jarduera plan zehatz bat eskatzen diogu Jaurlaritzari. Gertuko bizilagunen azterketa medikuak ahalik eta azkarren egin ditzatela. Ezinbestekoa da dagokionari erantzukizunak exijitzea", txalo zaparrada jaso dute oholtza gainean dauden Eitzagako auzokidek. Giroa bero dago Eitzagan. Kolore eta adin guztietako jendea maskarillak jarrita dago, ez sinbolikoki bakarrik, aire kutsatutik babesteko baizik. "Zaldibar argitu!" da oihurik errepikatuena, baina bide osoan ez da falta izan Iñaki Arriola eta Iñigo Urkulluren dimisio eskaerarik. Aurrera jarraitu aurretik, komeni, gertaeren kontakizuna hasieratik egitea.

112 larrialdi zerbitzuetako telefonoa jo eta jo hasi da. Otsailaren 6a da, osteguna, 16:00ak pasatxo. A8 autopistan dauden gidariak dira batez ere deika ari direnak. Diote mendia erori dela Zaldibarren eta bi norabideetan moztu duela trafikoa. Zer gertatu ote da? Larrialdi zerbitzuak bidali dituzte ziztu bizian. Hasiera batean zabortegian lan egiten duten sei pertsona desagertuta daudela zabaldu da, eta agian autoren bat ere harrapatu duela zabor-jauziak. Gerora jakin dute desagertuta zeuden hainbat langile kafea hartzera joanak zirela eta bi direla desagertuak: Alberto Sololuze eta Joaquin Beltrán. ARGIAk jakin duenez, Babes Zibileko bi teknikari ari dira salbamendu plana koordinatzen eta bi esparrutan hasi dira lanak: batzuk, zabortegiaren goiko partean, desagertuta dauden langileen bila; besteak, behealdean, autopistan zabor-jauziarekin autoren batean norbait harrapatuta geratu den begira.

20:30ak eta 21:00ak artean Osalaneko teknikaria iritsi da *krimenaren eszenatokira*, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundetik. Suhiltzaile eta ertzainak, zakurrekin, erreskate lanetan ari dira jo eta su. Osalaneko teknikaria zabortegiko langileekin hizketan hasi da, zer gertatu den, zer zegoen zabortegian... eta arraioa, gelditu guztia, amiantoa dago bertan, milaka tona. Erreskate lanetan ari direnek orduak daramatzate mineral hiltzailearekin aritzeko ongi prestatu gabe lanean. Nola da posible, ezbeharra gertatu eta hainbat orduz, ez Babes Zibilak, ez enpresak, ez Ingurumen Sailak, inork ez ezer esan izana bertan pilatutako amiantoaz? *Berria* egunkarian otsailaren 13an emandako elkarrizketan suhiltzaileek salatu dute ez zietela zabortegi batera zihoazenik ere esan. Are gutxiago amiantoa zegoenik. Jaurlaritzak bazekien bertan zer zegoen, baina inork ez du langileak horrela bidali izanaren ardurarik hartu bere gain.

Otsailak 7. Ostiralak argitu du. Albistegiak esan du 1:00etan geratu zituztela lanak amiantoa aurkitu zutelako bertan. Eskandalua tamaina hartzen hasi da. Imanol Pradales Bizkaiko garraio diputatuak Radio Euskadin azaldu duenez, ordu eta erdian lanak geldi izan ostean, ekipamendu egokiak hartu eta gau osoan autopistako bidea libratzen lanean jarraitu dute. Baita lortu ere. Nabari da garraio diputatua dela, bere eskumenaz, batez ere autopistaz mintzo da, amiantoa agertu izanari garrantzia kendu dio eta bi langile desagertuak agertzea opa du. Hori bai, ostiral goizean autopistan atzera eta aurrera ibili dira milaka auto. Zabortegian, goian, erreskate laneko taldea geldirik dago. Ez du inork azalpenik ematen eta 14 orduz geldirik da erreskate operatiboa. Ez du inork gizartea prestatzen, albiste txarrak jasotzeko. Agintari politikoak gehiago ari dira hauteskundeak aurreratuko ote dituzten ala ez eztabaidan. Desagertutako bi langileen senideak ahotsa altxatzen

JAIZKI FONTANEDA / FOKU

Goian, Iñaki Arriola eta Estefania Beltran de Heredia sailburuek eman zuten prentsaurrekoa otsailaren 10ean goizean. Behean, Urkullu lehendakaria, atzean sailburuak zituela, egun bereko arratsaldean hauteskundeak aurreratzen, diskurtsoan Zaldibar aipatu gabe.

hasi dira, hedabideetan beren haserrea adierazten. Beheko operatiboaren, hau da, autopistaren arduraduna Bizkaiko Aldundia –eta zehazki, garraio diputatua– da. Baina nor da goiko operatiboaren arduraduna? Ez da inor ageri.

Hondakinen munduan geroz eta gehiago ikusten diren izen engainagarrien multzoan sar litekeen Verter Recycling 2002 deitzen da zabortegia kudeatzen duen enpresa, eta Eusko Jaurlaritzak bazekien minbizi-eragile den amiantoa bertan pilatzen ari zirela. José Ignacio Barinaga Eguia izan da urtetan kudeatzailea eta 2017an 379.689 tona amianto deklaratu zuten, 2018an 540.667 eta 2019an 510.994. Ingurumen Baimen Bateratua jaso zuen enpresa hau behartuta egon da bertan bota duenaren berri Jaurlaritzari ematera. Ostiral arratsaldean erreskate lanei berrekin diete, baina ordu gutxira eten egin dituzte. Ilundu du eta lurra desegonkorra da. Tentsioa handitzen doa, Sololuze eta Beltran bizirik ateratzeko ordu kritikoak dira. Jaurlaritzako arduradunik ez da atera oraindik eta asteburua iritsi da. Are albiste beltzago batekin esnatuko dira herritarrak biharamunean: ostiral gauean sutea piztu da zabortegiaren goialdean eta suhiltzaileek ezin dute itzali.

Hurrengo egunetan ke toxikoa hara eta hona darama haizeak. Zer ari da erretzen? Plastiko usaina aipatzen dute askok. EAEko Auzitegi Nagusiaren 2015eko epai batean jasota geratu da zabortegiak material arriskutsuak hartu zituela, gutxienez aldi baterako, horretarako baimenik izan gabe eta jakinarazi gabe: bifenilo polikloratuak (PCB). Lindanoa ere egon daitekeela iragarri du Ekologistak Martxan taldeak. Eta 2017an Bilboko Zabalgarbi erraustegiko 2.000 tona zepa hartu zituen Zaldibarrek. Hori guztia eta ez dakizkigun gai asko daude filtrorik gabeko aire libreko erraustegi bihurtu den koktel horretan.

Herritarrak hedabideen ikerketei esker ari dira panoramaren berri izaten. Lehen egunetan Jaurlaritzako arduradun politiko nagusiak beste zereginetan daude. Hiru motatakoak izan daitezke suak: altuera batean daudenak, lurraren mailakoak eta lurrazpikoak. Azken hauek dira itzaltzeko zailenak. Txondorra bailitzan, zabortegiko suak bere lekua egiten du eta inguru osoa erretzen doa. Munduan badira hainbat hilabetetan pizturik izan diren lurpeko suak ere. Astebetez pizturik izan ostean, ikusteko dago euria gogoz egiten badu eta zaborrak pisua hartzen badu, ez ote den berriro ere goitik behera eroriko barrua pixkanaka suak husten dion zabor meta.

1997AN ZABORTEGIAK DEBEKATU ZITUZTEN ZALDIBARREN

Ez da atzo goizekoa Eitzaga auzoan eskandalua eragin duen zabortegiaren historia. 2011n ireki bazuten ere, bi hamarkada atzera egin behar da hasierara iristeko. Zaldibarko auzo honetako bizilagun asko aurretik ere kexu ziren bertan zeuden beste zabortegiengatik. Deskontrolatuta zeuden, denetarik botatzen zen bertan, herritarrek salatzen zutenez.

1996ko apirilaren 25ean ohiko osoko bilkuran Herri Batasunako bozeramaile Gaizka Zabartek salatu du gobernu batzordeko aktan irakurri dutela Udala zabortegi berria irekitzea tramitatzen ari dela, aurreko bi zabortegiak itxi gabe. Salatu du oposizioko zinegotziei ez zaiela informaziorik eman, eta Udalak ez lukeela zabortegi pribaturik bultza behar. "Zabortegiak negozio hutsa dira, inork kontrolatzen ez dituen negozioak", bota dio EAJko Blanca Onaindia alkateari, aktan jasota geratu denez.

Zaldibarko Udalak 1998an onartu zuen Eitzaga, Sallabente eta Olarreagako auzokideen artean zabortegiei buruzko erreferenduma egitea; ez zuen sekula egin

Zabortegi hori irekitzea Udalaren ekimena da izatekotan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko teknikariek HBko zinegotziei maiatzaren 8an esan dietenez. Udalak eginiko tramitazioa jasoa dute Jaurlaritzan, eta hori ongi badago, Ingurumen Baimen Bateratuaren zeregina baldintzak jartzea da: eraikuntza, kontrol neurriak eta errekuperazioa. Azken hitza Udalarena da, hala ere, teknikariek argi utzi dutenez. Eusko Jaurlaritzak 1994an egindako Hondakin Inerteen Kudeaketa Planean hitzez hitz jaso zuen Durangaldean eta Debabarrenan beharrak aseta zeudela: "Hurrengo 20 urteetan ez da zabortegi gehiagorik behar".

Horren jakitun, Zaldibarren hurrengo osoko bilkura tentsio handikoa izango da. Maiatzaren 23an, PPren bueltan dabilen Grupo Independientek (GI) eta Herri Batasunak mozioak aurkeztu dituzte zabortegi berriaren aurka, eta Eitzaga auzoan bizi den EAJko bozeramaile Pedro Bildosolak ere idazki bat aurkeztu du irekitzearen aurka. Zaldibarko Udalean EAJk eta PSEk 6 boto dituzte elkarrekin; GI-k 3 eta HB-k 2. Bildasola zinegotziak, ordea, alderdiaren diziplina hautsi du gai honetan eta EAJ-PSE tandema 5ekin geratu da, oposizioak gehiengoa lortuz. Zaldibarko Osoko Bilkurak onartu du zabortegia martxan jartzeko Gobernu Batzordearen oniritzia baliogabetzea, zabortegia ez egiteko behar diren neurriak hartzea, udalerrian zabortegiak debekatzea eta nonbait obraren bat egiteko baimenak ematean, bertan sortutako hondakinak Berrizko hondakindegi amankomunatura eramateko baldintza jartzea. 1997ko urtarrilaren 30ean berriro ere osoko bilkuran indarrak neurtuko dituzte: Arau Subsidiarioan aldaketa egitea onartuko dute herrian zabortegiak debekatuz. Alkatea EAJko Blanca Onaindia da garai hartan.

Gerora, buelta asko eman ditu gaiak udalerri mailako eztabaida politikoan. 1997ko abenduaren 11n, Ezohiko Osoko Bilkuran, EAJ eta PSEk osatutako Udal Gobernuak lortu du zabortegi berriaren aktibitate espedienteari emaniko oniritzia baliogabetu zuen erabakia atzera botatzea –EAJko bozeramale eta zinegotzi Bildosolak alderdiaren diziplina errespetatu baitu oraingoan–. 1998ko apirilaren 30ean, Herri Batasunak mozioa aurkeztuko du Eitzaga, Sallabente eta Olarreagako auzokideen artean zabortegiei buruzko erreferenduma egiteko. EAJ eta PSE aurka; GI, HB eta Bildosola alde, beraz, mozioa onartuta geratu da. Udalak ez du sekula herri galdeketa hura egin.

Handik hiru hilabetera, uztailaren 30ean, ondorengoa gertatu da osoko bilkuraren aktak jaso duenez: "Zerrendan dauden gaiak aztertzeari ekin orduko, idazkariak EAJko Zaldibarko Uri Buru Batzarrak bidalitako idazkia irakurri du; horrekin udalbatzari jakinarazten zaio aurrerantzean Blanca Onaindia izango dela Zaldibarko EAJko bozeramaile". Bildosolak adierazi du ofizialki berari ez diola inork ezer ere jakinarazi. Zabortegiak debekatuta daude herrian, baina Verter Recycling enpresak irekiko duen zabortegia oinarri, soka-tirak jarraituko du.

DANI BLANCO

KUDEAKETA POLITIKO KRITIKATUA

Itzul gaitezen 2020ra. 4 egun dira Zaldibarko zabortegia amildu zenetik eta gertaera dimentsio politikoa hartzen ari da. Krisia handia da, Eusko Jaurlaritzako departamentu ugari ukitzen ditu: Ingurumen Saila, Segurtasun Departamentua, Lan eta Justizia Departamentua eta Osasun Departamentua. Nor da koordinatzailea? Denen gainetik, Iñigo Urkullu lehendakaria bakarrik dago, eta larrialdiei aurre egiteko legea jarraituz, berak du funtzio hori. Ez du egingo. Horren ordez, astelehena arte bigarren lerroko politikariak bidaliko ditu herritarren aurrean azalpenak ematera. Baina hori da gutxienekoa: nor da zabortegiaren goiko operatiboaren azken erantzulea?

Ordezkari politikoen lehen egunetako agerpenen ordenak asko dio gaiari garrantzia kendu nahi izateaz: Ingurumen sailburuordea da Eusko Jaurlaritzaren izenean publikoki hitz egingo duen lehen pertsona, otsailak 8 larunbatean, Elena Moreno. Gaiari larritasuna kentzen saiatzen da. Egun horretan bertan Josu Erkorekak Anbotoren gailurrean irribarretsu ageri den argazkia igo du sare sozialetara, eta sortu duen kritika uholdeak eraginda, arratsean kendu egingo du ezer ere esan gabe. Urduritasuna transmititzen hasten dira. Igande goizean, bigarren lerroko beste politikari bat, Segurtasun sailburuorde Josu Zubiaga atera da prentsaurrekoan. Astelehen goizerako sare sozialetan gorpuzten ari da herritar askoren haserrea eta presioa. Hurrenak aurpegia ematen Ingurumen eta Segurtasun Sailburuak dira, elkarrekin deitu dute prentsaurrekoa, Iñaki Arriola eta Estefania Beltran de Heredia. *#NonDagoUrkullu* traolak ehunka mezu biltzen ditu eta azkenik asteleheneko 16:00etan atera da jendaurrera lehendakaria. Ez du ordea Zaldibarko larrialdiaz hitz egiteko asmorik, hauteskundeak aurreratzen dituela eta legebiltzarra disolbatuta geratu dela iragarri du 40 minutuko prentsaurrekoan. Gaiaz galdetu dion *Gara*ko Iñaki Iriondori haserre erantzun dio Urkulluk, Twitterreko kanpainengatik behintzat ez dela zabortegira joango, ez dela eszenografia zalea esanez, besteak beste. Handik bi egunera presioari men egin eta Zaldibarren agertuko da, eta hurrengo egunetan krisi mahaian dagoela erakutsiko du telebista publikoak, nahiz eta 30 minuturako joan eta alde egin bileratik.

Eusko Jaurlaritza kritika ekaitz batean ari da murgiltzen. Ingurumen Baimen Bateratua daukaten proiektuen –zabortegi



honek bazuen– kontrola eta ikuskaritza Ingurumen Sailaren ardurapean dago. Gainera, Morenoren ondorengo hitzek ere harrabotsa sortu dute: Zabortegia zigortzear zeudela esan du igandean. Nahiz eta Jaurlaritzak aurrez abisatutako ikuskaritza izan zen, Ingurumen Sailak "irregulartasun larriak" aurkitu zituen 2019ko urrian Eitzagako zabortegian. Jende askok dagoeneko ez du sinesten, otsailera arte ez bazuten neurri zuzentzailerik edo zigorrik ezarri, zergatik sinetsi zigorra jartzear zirela?

Handik aurrera gertaerak azeleratuko dira: Jaurlaritza gaia kudeatzen ari dela transmititzen hasten da, baina suteak pizten zaizkio batean eta bestean. Adibide batzuk aipatzearren, Iurretako ertzain etxeko argazki bat zabaldu dute ertzainek, amiantoarekin lanean aritu diren ertzainen jantziak lurrean, plastikozko poltsa batean sartuta, eta paper batean "zigilatuta, amianto kutsadura arriskua" itsatsita ageri dela erakusten duena; Gipuzkoako suhiltzaileek salatu dute beren kamioiak ez dituztela garbitu amianto artean ibili ostean; desagertuta jarraitzen duen Joaquin Solozabal langileak zabortegia ezegonkor zegoela eta arduradunei geratzeko eskatzen bi aste zeramatzala zabaldu da; asko Arriolaren burua eskatzen hasi dira, beste batzuk zuzenean Urkullurena; astelehen buruzuria izan arren milaka lagun atera dira Eibar, Ermua, Mallabia eta Zaldibarren protestan kalera. Haserrea gorpuzten hasi da eta krisia Jaurlaritzari handi geratzen zaiola eta informazio falta salatzen du askok.

Krisi honek galdera bat mahai gainera tu du nahiko azkar: Eusko Jaurlaritzaren larrialdi sistemak prest al daude halako egoera bati aurre egiteko? Espainiako Kantabria probintziatik ekarri dute sutea itzaltzen laguntzeko helikopteroa, Jaurlaritzarentzat zabortegiaren egoera bera baloratu duen aditua Herbehereetatik etorri da, airearen analitika datuak Madrilen aztertu dituzte. Inplikazio politikoak dituen egoera da. Aldi berean, Jaurlaritzari kritikak hasi zaizkio espainiarzaleen partetik ere, *El Mundo*k argitaratu baitu Lakuak uko egin ziola lehen egunean Espainiako armadak erreskaterako eskainitako laguntzari, helikoptero eta zakurrez osatua. Azken eskandalua, aste osoa "airearen kalitatea ona" zela esaten igaro ostean, ostiral gauean Osasun Sailak inguruotan dioxina eta furanoen kopurua hiriguneetakoa baino 40-50 aldiz handiagoa dela aitortu duenean lehertu da. Inguruotako herritarrei leihoak ixteko eta kalean kirolik ez egiteko gomendatu diete, eta egoeraren larritasunaren lekuko, Eibar eta Realaren arteko futbol partida ere bertan behera utzi dute, termino komunikatiboetan horrek dakarren guztiarekin. Askok galdetzen dute kirolik ez egiteko gomendatzen badute, ea kalean lan egitea onargarria den.

EZKER ABERTZALEA ILEGALIZATU ZUTENEAN IREKI

Goazen berriro atzera. Lizarra-Garazi garaiak iritsi dira, baita azkar pasa ere. Ondoren, ezker abertzalea legez kanpo utzi du Espainiako Alderdien Legeak. Horrek ondorio ugari ekarri ditu, baita esku artean dugun gaian ere.

2002an jada ez da alkate Blanca Onaindia, EAJko Igor Barrenetxea-Arando baizik. Bost urte lehenago bide bazterrean geratutako zabortegiaren plana berrartuko du alderdiak, eta hau ireki arte lan egingo dute pausoz pauso. Hasteko, azaroaren 28an, arau subsidiarioen zati baten aldaketa onartuko dute, betelan, zabortegi eta lurren egokitzapenen erabilera arautzen duena. Eitzaga auzoan zabortegiak ez debekatzea onartuko dute egun honetan. Aktan irakur daiteke Batasunako Jon Azagirre zinegotziaren protesta, esanez ordura arte hiru zabortegi izan dituztela, zabortegi horietako baten promotoreak legez kanpoko isurketak egin izan dituela eta orain pertsona horrek beste zabortegi bat sustatzen duela. Horrez gain, salatzen du Udalak ezin duela saldu neurri positibo gisa, "helburua promotoreari pista librea ematea" dela eta ingurumena kal-

tetuko duela, Munikolako zabortegian agerian geratu den bezala. Horrez gain, ordura arte zabortegiaren aurka egondako GI-k aldatu egingo du botoa eta Benito Paco zinegotziari aurpegiratu diote iruzurra egin duela, hauteskunde programan zabortegi gehiago irekitzea debekatzea eta erreferenduma egitea defendatu duelako, eta egun erabakigarrian aurkakoa bozkatu duelako.

Eztabaida sutsua da Zaldibarreko osoko bilkura honetan. Akta osorik irakurtzeko modukoa da, zati batzuk transkribatu eta euskaratuta ekarriko ditugu orriotara. Hona alkatearen eta Herri Batasunako zinegotziaren arteko eztabaida:

Alkate jaunak azaldu du ez dakiela non ikusten duten Batasunako ordezkariek zabortegi berriak irekitzeko aukerarik, argi dagoenean udalak ez duela zabortegiak kontrolatzeko aukerarik, eta beraz, isuri inerteen inguruan dago aktibitate bat sortzeko aukera, zeina Eusko Jaurlaritzak kontrolatzen duen, eta gainera, ezberdintasuna dago lurren zabortegien eta inerteen zabortegien artean. Azken hauetan enpresak botako duenaren ziurtagiria aurkeztu behar du. (…) Eusko Jaurlaritzaren neurri zuzentzaileak askoz zorrotzagoak dira hemen.

Zabarte jaunak erantzun dio grazia egiten diola kontrola Eusko Jaurlaritzaren eskuetan geratuko dela esateak, orain arte beraien eskuetan egon denean eta hala ere denek [herriko beste zabortegietan] modu inkontrolatuan bota dituztenean hondakinak. Gainera nahikoa da espedientea aztertzea ikusteko promotore hauen historiala zein den eta aurka bozkatzeko, baina EAJ promotoreen menpe dago, beti egin dute sudur puntan jarri zaiena eta EAJk beren gurariei amen esaten die.

Alkateak azaldu du promotoreak ez direla berak, estatutuak ikusi besterik ez dagoela eta ez dituela ulertzen Batasunak mahai gaineratu dituen argudioak proposamenaren aurka egiteko, lurren zabortegiak ez direnean hain murriztaileak eta une horretan egiten ari direna denean inerteen zabortegi bat non instala litekeen zehaztea.

Zabarte jaunak erantzun dio zabortegi guztietan edozer bota izan dela eta badakitela jende mota horrekin oso barkaberak direla, eta alkateak proposatu duen moldaketak pista librea ematen diela, eta gainera, ez dutela ez bideak egiteko lizentziarik eta legez kanpo dabiltzala dagoeneko bide hartatik.

Alkateak kontra egin dio esanez badutela obrarako lizentzia eta beste bi zabortegietan dauden arazoak konpontzeko konpromisoa hartu dutela..

Zabartek adierazi dio Alkate Jaunak promotoreen bozeramailea dirudiela eta Etxebarri zabortegiak jada ez duela konponbiderik, eta beraiek sinetsi egiten dutela ikusten dutena.

Eztabaidak luze jarraitu zuen PSEko eta GI-ko zinegotzien parte hartzearekin, eta azkenik bozkatu egin zen. Emaitza: zortzi boto debekua altxatzearen alde EAJ/EA 5 (Igor Barrenetxea-Arando, Jose Ignacio Mendiolagaray, Nerea Garitagoitia, Jose Martin Garitaonandia eta Mertxe Aranburu), PSE-EE 2 (Angel Martin eta Javier Tera) eta GI 1 (Benito Paco); Batasunako 3 boto aurka (Gaizka Zabarte, Idoia Marin eta Jon Azagirre). Hor hasi zen zabortegia irekitzeko bidea.

Pauso hori 2003ko martxoaren 27ko ohiko osoko bilkuran borobilduko dute arau subsidiarioaren aldaketa behin -behingoz onartuz. Ondorengo pausoa Verter Recycling 2002 enpresari lanak hasteko baimena ematea da. 2007ko maiatzaren 17an egingo dute, gobernu batzordean. Ezker abertzalea, ilegalizaturik, jada udaletik kanpo da. Lizentzia hauek ematea alkatearen eskumena da, kasu honetan, Igor Barrenetxea-Arandorena. Baimena eduki arren obrak ez direnez emandako epean hasi, baimen berria eman dio enpresari 2008ko irailaren 4an. Hurrengo urtean, Barrenetxea-Arandok alkatetza utziko du Bizkaiko Aldundiaren Azpiegitura sailean lanean hasteko: hilabete gutxira kontseilari eta idazkariorde izendatuko dute.

Azkenik, EAJko alkate Idoia Mendiolagaraik 2011ko maiatzaren 6an sinatuko dio Verter Recycling 2002 enpresari aktibitate lizentzia, Bilduk herrian hauteskundeak irabazi baino 16 egun lehenago. Ostiral hartan, Zaldibarko Udal Gobernu Batzordean bilduko dira alkatea, Nerea Garitagoitia (EAJ) eta Benito Paco (GI). Batzordeko kide den Angel Martin (PSE-EE) ez da bileran egon. Aipatutako arduradun politiko hauek aho batez onartuko dute Eitzagan hondakin ez-arriskutsuen jarduera irekitzeko lizentzia ematea, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak "ezarritako baldintza eta neurri zuzentzaileekin". Lizentzia hau eskuratuta, Verter Recyclingek zabortegia ireki du eta zaborra bertan botatzen hasiko da.

Handik bi astera, 2011ko maiatzaren 22an egindako hauteskundeetan, EAJk alkatetza galduko du eta Bilduk gehiengoa lortu Zaldibarren 780 botorekin. EAJk 324 boto lortu ditu, PSEk 252 eta PPk 124. Alkatetza koalizio abertzaleko Arantza Baigorrik hartu du, baina dagoeneko zabortegi hau atzera bueltarik gabe zaborra pilatzen hasi da.

ZALANTZA UGARI AIREAN

2011 hartatik bederatzi urte pasa dira eta Zaldibarko zabortegiak 35 urtean jasotzea aurreikusten zituen hondakin industrialak epe horretan jaso ditu. "Zuloa" deitzen zioten garraiolariek, eta egunotan prentsan bateko eta besteko lekukoek azaldu dutenez, inolako kontrolik gabe hondakin kutsakorrak bota dituzte urteetan, milaka tonaka. "Kamioia zamaz bete, eta hara eramaten genuen zaborra, inolako birziklatze prozesurik egin gabe. Han denetik ikusi izan dut: material korrosiboen bidoiak, suharberak, amiantoa...", adierazi dio garraiolari batek *Berria*ko Iñaki Petxarromani. Jaurlaritzak ez zuen kontrol neurririk hartu?

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak, baita Josu Erkoreka bozeramaleak ere, adierazi du beraiek zabortegi horretan aurkitutako irregulartasunak ez daudela amildu izanaren kausen artean. Hori horrela bada, Jaurlaritzaren kontrolak ez dira gai izan milaka tona zabor eragitear ziren sarraskia aurreikusteko, eta beraz, kontrol sistema osoa jarri dute arduradunek auzitan. Horrez gain, aipatzekoa da, Jaurlaritzak halako enpresei egiten dizkien kontrolak, aurrez abisatuta izaten direla, ARGIAko irakurleak beste azpiegitura batzuei buruzko artikuluetan –erraustegiak kasu– irakurria izango duenez.

Ermuar ugarik diote zabortegi horretan "denetarik" sartzen zela. ARGIAri zenbait lekukok adierazi diotenez, Alemania, Frantzia, Portugal eta beste hainbat herrialdetatik etorriak, gau eta egun, asko erabat estalita. Aipatu berri dugun garraiolariak dio 230 kamioi sartzen zirela egunean.

"Ikusten genuen handitzen eta handitzen, eta esaten genuen: hori noizbait amildu egingo da; baina ez genuen sinesten edo ez genuen sinetsi nahi eta gure eguneroko bizitzarekin jarraitzen genuen", adierazi digu zabortegiaren ikuspegi garbiena dagoen mendi hegaletik, inguruan bizi den Juan Ramonek. "Jaurlaritzakoak etorri dira neurketak egitera, porruak, tomateak, lurra eta beste eraman dituzte. Esan diegu

Geyser HPC enpresak erabat aldatu omen zuen zabortegiaren proiektua

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Irregulartasunen zerrenda luzean, bat gehiago planteatu du otsailaren 16an *Diario Vasco*k eta *El Correo*k: 2007an Jaurlaritzaren Ingurumen Baimen Bateratua (IBB) lortu berri zuen LKS-ren proiektua eskuan, Verter Recycling enpresak Geyser HPCrengana jo zuela, zabortegiaren eraikuntza lanak, kudeaketa eta zabortegia ixteko lanak "optimizatzeko". Kontraesan oso handia planteatzen du egunkari horien artikuluak: antza denez Jaurlaritzaren IBB ez zela aldatu, nahiz eta proiektua erabat diferentea egin Geyserrek. 2007an eman zen IBB ikusgai dago, baina geroztik izan dituen aldaketak ez, eta tartean aldaketa handiak jasan ditu. Pentsa, IBBak berak hasieratik "arriskutsuak ez diren ondakinen zabortegia" izendatua du Zaldibarkoa, eta geroztik amiantoa onartzeko besteko aldaketak egin zaizkio IBBari. Hori diote Arriolak eta Zaldibarko alkateak, herritarrok ez dugu baimen horren agiririk ikusi.

ENPRESA HONEK EUSKAL HERRIAN EGINIKO LAN GEHIAGO

• **Ingurumen sailarentzat** "Goiaingo industrialdeko lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketa" (2007). Ustez kutsatutako tokietan eraikitako industrialdeen lurzoruen kalitatea ikertzea (2007). Zabortegi publiko ez aktiboen ingurumen-eragina zaintzea eta segimendua egitea (2010). Zabortegi publiko ez-aktiboen ingurumen-eragina zaintzea eta segimendua egitea (2013).

• **Donostialdeko San Marko** zabortegiaren IBB eskatzeko proietua (2011). Zabortegiko I. fasea ixteko eta berreskuratzeko proiektuaren zuzendaritza fakultatiboa (2004). Zabortegiaren II. fasea itxi eta berreskuratzeko xehetasun-proiektua idaztearen kontratua (2009). Aizmendiko zabortegian hondakin ez-arriskutsuetarako gelaxkaren I. faseari dagozkion obren zuzendaritza (2015).

• **Beasaingo Sasieta** zabortegia direktibaren exijentzietara egokitzeari buruzko ikerketa (2000). Sasieta zabortegiko I. faseko berreskuratze eta itxiera proiektuko obra zuzendaritza (eta beste hainbat lan) (2008). Zabortegiaren mugak handitzeko proiektua idaztea (2008). Zabortegia berreskuratu eta ixteko II. faseko proiektua (2016).

• **Bergarako Epele**ko zabortegiaren egokitzapenari buruzko azterlana, hondakinak zabortegian utziz hondakinen ezabatzea arautzen duen Errege Dekretuaren eskakizunei jarraituz (2003).

• **Bilbo, Artigas**: gordailua zigilatzeko eraikuntza-proiektua idazteko laguntza teknikoa (2003).

• **Bermeoko erraustegia**ren lehengo hondakindegia aztertzeko ikerketa (2006).

• **Barakaldo**: Bakea-Tellaetxe aldean lurzoruaren kalitatearen ikerketa eta ingurumeneko jarduketen azterlanak (2012).

• **Urduñako zabortegia** berreskuratzeko eta zigilatzeko proiektua eta Los Milanos kokalekua kontrolatzeko lanak egitea (2014).

• **Igorre**: hiri hondakinen deposituan ingurumen berreskurapena egiteko lanen aholkularitza eta zuzendaritza teknikoa. III Fasea: behin betiko ixtea. (2017)

• **Galdakao**: kutsatuta egoteko arriskua duten lurzoruetan jardutea: Tiro Zelaia eta Basabera bidea (2017)

• **Bizkaiako Ur Partzuergoa**k kontratatu zuen 2018an Ibarra auzoan lurraren erresistentzia termikoa neurtzeko.

ea zer egin behar dugun kea gure etxerantz datorrenean, hain izan da jasanezina lehen egunetan hodeia, abereak gobernatu, leihoak eta pertsianak itxi eta hanka egin genuela. Osasun teknikariek esan digute ongi egin genuela, berriro gertatzen bada, berriro ixteko dena, eta ezin bada egon, ospa egiteko", dio Eitzagatik zabortegia parez pare ikusten duen Jose Luisek.

Eusko Jaurlaritza airearen kalitatea neurtzen ari da, eta hirietako ohiko parametroak neurtu ostean (SO2, CO, NO2, ozonoa, partikulak –PM10 eta PM2.5– eta bentzenoa.), hauek ez direla apartekoak errepikatu du behin eta berriz lehen astean. Gezurra? Ez, baina bai herritarrengan gaizki-ulertua sortzen duena. Izan ere, aztertutako parametro horien arabera, airearen kalitatea normalitatearen barruan zegoen. Baina herritarrak "airearen kalitate ona" hitza entzutean, eta neurketak zer parametro aztertzen dituen –ta zein uzten dituen kanpo– ezagutzen ez duenez, ulertzen du "osasunari kalte egiten ez diona" dela "ona". Dioxina eta furanoen neurketak, ordea, otsailaren 9an egin ziren –bosgarren egunera arte ez, beraz– eta Madrilgo laborategietan aztertu ostean, otsailaren 14an iritsi ziren emaitzak. Horrek ekarri du herritar asko "engainatuak" sentitzea, bere zentzumenek esaten ziotenaren aurkako mezua ematen aritu baitzitzaion Ingurumen saila airearen kalitatea "ona" zela esanaz, eta ondoren ikerketek arrazoia eman diotelako herritarren perzepzioari. Zeri egin kasu, beraz, aurrerantzean, erakunde publikoek osasunaz emandako oharretan?

ELAk salatu du Elena Moreno Ingurumen sailburuordeak "isiltasunaren legea" ezarri nahi izan diela Zaldibarko zabortegian gertatzen ari denaz bere saileko eta Uraren Euskal Agentziako langileei posta elektronikoz mezu bat bidalita. "Sailburuordetza honetako ohiko bideetatik kanpo argitaratzen den informazio oro ardura pertsonal gisa hartuko da", zioen mezuak. Jaurlaritzak inguruko baserritarrei eskatu die beren baratzeetako barazkiak ez jateko, eta ura gertuko iturburuetatik hartzen duten baserrien kasuan, ura txorrotatik ez edateko. Zenbateraino ari dira kutsatzen Eitzagako zabortegiaren inguruan bizi diren milaka pertsonak? Haizearen norabidearen arabera, erre usain lodia nabaritzen dute herritarrek, eztarrian.

HAUTESKUNDEEN ZURRUNBILORA

Modu korapilatsuan ekin dio Eusko Jaurlaritzarako hauteskunde kanpainari

EAJ-PSE tandemak. Hasiera batean helburua gehiengo osoa lortzea zuela adierazi zuen Urkulluk, baina ikusteko dago nola eragingo dion zortzi urteetan Urkulluren gobernua pairatzen ari den krisi politikorik larrienak. Erreportaje hau inprentara bidaltzeko orduan, lehendakariak legebiltzarrean azalpenak eman beharko ditu, lepora salto egin nahiko dion oposizioaren aurrean. Aldi berean, hauteskundeak aurreratuz Legebiltzarra disolbatu du Urkulluk, eta horrela oposizioa krisi honi buruzko inolako daturik eskuratzeko aukerarik gabe utzi du gobernuak.

Krisia kudeatzen mahai teknikoa jarri dute. Bertan dira Jaurlaritzako sail ugari, baita Zaldibar, Ermua eta Eibarreko alkateak ere. Krisi mahaiaren koordinatzailea Urkullu dela adierazi du Jaurlaritzak, bere lidergoa erakutsiz irudietan. Hasieratik martxan egon bada mahai hori, Urkulluk egindako adierazpenen arabera, ez ote da inplizituki onartzen ari, zabor jauziaren lehen unetik, berari zegokiola hainbat sail koordinatzea eskatzen duen goiko operatiboaren azken ardura? Elgetako alkateak salatu du mahai teknikora ez dutela gonbidatu, nahiz eta zabortegitik 200 metrora egon. EH Bilduko kide bakarra litzateke bertan. Horrez gain, Zaldibarko Krisi Mahaiko bi kidek erraustegien lobbyarekin harremana dutela salatu duenik ere bada. Legebiltzarrean oposizioko alderdiek salatu dute Jaurlaritzak ez diela informaziorik ematen eta prentsaren bidez ari direla jarraitzen nondik norakoak.

Ikusteko dago Gipuzkoako erraustegi berriaren gaiari ere nola eragingo dion eskandalu honek. Krisia lehertu denetik isilik dira Olano eta Asensio, nahiz eta kutsadurapean dagoen Eibar hiria Gipuzkoa izan. Krisi betean, gainera, egun batetik bestera, Mutiloako zabortegia itxi dute, eskandalu berriak ekidin asmoz. Bitartean, herri mugimenduak azken txanpan sartuta daude. Errausketaren Aurkako Mugimenduak erraustegia piztu aurreko Zubietako zero gunearen azterketa toxikologikoa egina du eta emaitzak esku artean ditu, kutsadura datuak urtez urte konparatzeko; eta bestetik, otsailaren 29rako manifestazio bateratua deitu dute eragile ugarik Donostian *Ez erre etorkizuna* lelopean.

"EUSKAL PRESTIGE"

Eitzagan amaitu den manifestazioa hitza hartzen azkena Helene Alberdi da, desagertutako langileen senideen ordezkaria. "Milesker gaur hona etorri zareten milaka lagunei, baita egun luze hauetan maitasuna eta indarra helarazten ari zareten guztiei ere, eskerrik asko. Egia esan oso maitatuak sentitzen ari gara eta hau oso garrantzitsua da. Espero dugu presio honen eraginez lanean serio jartzea eta ahalik eta azkarren gure senideak hortik ateratzea, milesker bene-benetan". Bere aurretik, Egoitz Txurruka mintzatu da herrietan gaia jorratzeko sortzen ari diren plataformaren izenean, eta borrokan jarraituko dutela adierazi du.

Adinean gora doazen ama-semeak, istripua gertatutako lekuaren parean, autopistaren beste aldetik hondeamakinak lanean nola ari diren begira daude. Duela 40 urte Galiziatik Ermuara lanera etorritako herritarrak dira. "Honek guztiak Prestige petrolio-ontziarekin gertatu zena dakarkit gogora –esan digu semeak, amak ondotik buruarekin baietz egiten duela–. Han ere izugarrizko desastrea gertatu zen, eta zer egin zuen Rajoyk? Lehenik eta behin garrantzia kendu, plastilina hariak zirela esanez, ontzia kostatik urrundu zuten, pena eman zuten, eta azkenean kudeaketa txarraren ondorioz, kosta osoa zikindu zuten. Hemen antzeko zerbait gertatzen ari dela uste dut". Hori esan eta ttirriki-ttarraka aurrera jarraitu dute. ●

“Euskal hiritartasuna eraiki nahi duen herritar batek ezin du estatu arrotzarekin bat egin”

THOMAS PIERRE ANTROPOLOGOA

Paris, 1977. Antropologia eta historia ikasia da. Eusko Ikaskuntzak *Hiri antropologia* gaia ekarri du hizpidera *53. Eusko Folklore Urtekaria*-n. “Ipar Euskal Herriko euskal hiritartasuna onartuta ez dagoenez gero, euskal jendartea gabezia horrekin nola moldatzen den azaldu nahi izan dut, baita herri elkarteak eraikitzen ari diren euskal nortasuna azpimarratu ere”, erran digu Thomas Pierrek.

MIKEL ASURMENDI DANI BLANCO

Euskal jendarteak bere nortasuna garatzeko zailtasunak dituela diozu. Eremu pribatua eta publikoa alderatu dituzu zure gogoetan.

Baiki. Iraganean euskal kulturak leku bat zuen eremu pribatuan, alabaina, eremu hori galduz joan da, indibidualtasunaren edota familiaren garapen ezberdinak direla eta. Familia zen euskara eta euskal kultura babesten zituen gunea, eta hori arras aldatu da. Alta bada, oraindik ere, euskal nortasuna esparru pribatuan bizi da, eremu publikoan ez du lekurik, edo oso gutxi; Ipar Euskal Herrian batez ere. Euskal jendartea osatzeko beharrezkoa den hiritartasunik ez dago, herritar denen arteko lotura gauzatzeko ezaugarri bateraturik ez dago, euskal hiritartasuna sortzen lagundu lezakeena. Oraindik ez dugu lurralde historikoa eta linguistikoa osatu.

Hendaian bildu gara, leku berezia.

Hendaian gaude, eta harrigarria da, hogei kilometroetan euskarak ez du estatus bera, hau da, Euskadi delakoan, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian. Hizkuntza bera da. Baina balizko euskal hiritarra babesten duen legerik ez dago. Iraganarekin eta etorkizunarekin jendartea lotu dezakeen elementu nagusia hizkuntza da, hots, euskara. Haatik, azken hamarkadatan haurrek ikas dezakete euskaraz, gutxi-asko lekuaren arabera; tira, garai berri baten hasieran egon gaitezke.

Nola ulertu behar dugu hiritartasuna kontzeptua gaur egungo gizartean?

Kontua da ea hiritartasuna gizabanakoaren arabera ulertzen dugun edo taldearen arabera. Izan ere, norbanakoaren arabera ari bagara, ezin dugu kultura eta nortasun bakar bati buruz hitz egin, ezin dugu euskal kulturaren babesari buruz hitz egin. Egungo jendartean hainbeste kultura eta hizkuntza elkarrekin bizi direnez gero, ez da objektiboa. Aldiz, talde edota lurralde linguistiko bati buruz ari bagara, denon arteko zerbaiti buruz ari gara, denon arteko etorkizun batez ari gara, tokiko historia erreferentzia harturik. Zentzu horretan, gaurko euskal munduak aniztasuna etengabe sustatzea, erabat naif edo inozo iruditzen zait. Izan ere, demografiaren garapena ikusita, gizabanakoaren eta taldearen interesak oso bestelakoak dira.

Globalizazioak nortasunaren pertzepzioak aldatu dituela, diozu.

Bistan da. Globalizazioak nortasunaren pertzepzioak areagotu ditu mundu osoan. Zorionez, euskal kasuan globalizazioak sortu dituen bitartekoak baikorrak dira. Euskal Herrian bertan tradizioarekiko atxikimendua apaltzen ari da, ttipitzen, baina aldi berean, diaspora indartu da interneten bidez, bien bitartez tradizioa indartu da. Diasporak antzinako baloreak piztu ditu. Diasporan argi eta garbi hitz egiten da gure jatorriaz, tradizioaz, hizkuntzaz, antzinako euskaldunak –lurrari atxikiak– zituen eskubideei buruz. Mundu birtualean badago joko gisako hori. Hala ere, kontraesan bat ageri da.

Nolakoa?
Euskal Herrian, tokikoek modernotasuna nahi izan dute azkartu, aldiz, diasporakoak ilusioz, ametsetan eta erromantizismoan bizi dira. Nire ustez, herri txikiagotu batek erromantizismo gutxieneko bat bizi behar du, herri bezala atxikitzeko ilusioa. Erran nahi baitut, badirudi tokikoek –Euskal Herrian bizi garenok– ezaugarri horiek utzi behar ditugula, beste kulturakoek "onartzen" ez dizkiguten ezaugarriak. Zergatik, baina? Tokiko kultura batek bere osagaiak egokitu behar ditu, ados, baina beste kultura dutenak –hona etorritakoak– adaptatu beharko lirateke tokiko kulturara. Nire ikerlanetan, mitoak deuseztatu nituen euskal kulturaren aurkako diskurtsoak deseraikitzeko. Haatik, euskal mitoak badu bere funtzio sinbolikoa. Jendarte bakoitzak bere bilakabide historikoa onartu behar du. Euskal Herriaren kasuan, misterioaren eta antzinakoaren ideia oso garrantzitsua da.

Zure aburuz, "hiritartasun esperientziak eta subjektibizazio politikoak prozesu berriak zabaldu dituzte".
Adibidez, Eusko Irakaskuntzak geroari begira jendartea antolatzeko dauden aukerak aztertu ditu, alor horretan gauza asko egiten du. Eta hori azpimarratu behar da, hori ez da egiten euskal instituzioetatik, tokian tokiko euskal gobernuetatik, gizartean antolatutako erakundeek egiten dute, funtsean jendartetik jalgi diren elkarteek. Euskal Herrian, beste herrialdeen aldean, elkarteen mugimendua oso indartsua da, gizartearen motorra da.

Azken urteetan abertzaletasunak hartu dituen zenbait jokamoldeekin kritikoa zara.
Abertzaletasun modernoak antzinako baloreak kritikatu izan ditu zorrotz. Europako mugimendu orokorren ildoan egindako kritikak dira, hori herrialde guztietan gertatu da. Jendearentzat tradizionala dena itsusia eta arriskutsua da, atzerakoia. Zergatik, ordea? Horiek egungo euskal gizartearen oinarriak dira. Jokamolde horien gibelean hauxe dago funtsean: iragan mendeetan antropologiak nortasun guztiak sortu eta deskribatu zituen, baina azken hamarkadetan an-

tropologiak nortasun guztiak desegin ditu. Erran nahi baita, antropologoen diskurtsoetan ageri denez, gaur egun lotsagarria da nortasunari buruz hitz egitea. Ematen du atzerakoia zarela, ia debekatuta dago.

Antropologiaren ikusmoldeak aldakorrak dira historiaren bilakaeran, beraz.

Bai. Orain nortasunaz mintzatzea ez dago modan. Fenomeno hori gertatzen ari da herrialde guztietan, eta tokiko jendea gutxiengoa bihurtzen ari da. Alta, euskal gizarteak badu abantaila moduko bat: historian baztertua izatera ohitu da. Galdera da: "Nork adaptatu behar du bere nortasuna? Bertakoak edo kanpotik datorrenak?". Gaur egungo ezkerreko pentsamenduaren arabera, ematen du, kanpoko jendea jasotzen duen herrialdeak bere tradizioak adaptatu behar dituela eurekiko.

"Kulturaren eta politikaren arteko lotura berrirakurtzea", proposatzen duzu.

Izan ere, errekonozimendu politikorik ez duten herri txikien kasuetan, arazoa kulturaren eta politikaren arteko lotura eza da. Arazo handiena. Euskal Herria gabezia horrekin bizi da, eta ez da erraza herri bezala irautea. Hau da, gizabanakoak ari gara gure kulturaren inguruan, gure nortasuna atxikitzeko militantzian bizi gara, etengabean, alor guztietan.

Estatua eta nazio kontzeptuen ezaugarriak berrikusi beharra ere, aipatzen duzu.

Euskal Herriak egoera ezberdinak ezagutu ditu bere historian, ezberdintasun handienak gure Iparraldearen eta Hegoaldearen artekoak dira. Frantzian nazioa estatua da. Espainian, eta Hegoaldean, bien arteko zerbait da, ezberdina da. Estatua espainiarra da, baina nazioa ez da erabat espainola, badaude nazionalitate historikoak bezala ezagutuak, herrialde batzuk onartuta daude. Gero, errealitatean naziotasuna nola gauzatzen den? Bada, nekez. Horregatik diot, nire aburuz, Iparraldean nahiz Hegoaldean, euskal hiritartasuna eraiki nahi duen herritar batek ezin du estatu arrotzarekin bat egin, edo harekin batera jardun. Estatuarekin batera jardun dezake arazo sozialei dagokienean, baina kulturaren eremuan ezin du bat egin. Estatuak ez dio inoiz bere nazioa onartuko.

Antropologiaren ikuspuntutik ez da aski hiritartasuna objektu bezala aztertzea. Gizabanakoaren eta estatuaren arteko harremana auzitan jartzen duzu.

Estatuko ikerlariek ez dute hiritartasuna objektu politiko bezala aztertzen, alegia, ez dute "estaturik gabeko herrien" hiritartasuna aztertzen, haiek badute beren nazioa, nazio eraikia, eta ez dute ikusten beren kulturarentzat nazioaren beharra, ez dute ikusten hiritartasunak batzuei eskubide osoak ematen dizkiela, eta besteei berriz, eskubide partzialak.

Maluruski, Frantziako Errepublikaren ideologia oso barneratuta dago hiritarrengan, baita euskaldunen artean ere. Frantziako Iraultzak indar izugarria izan zuen, eta geroko gertaerek zer esanik ez: I. eta II. Mundu Gerrek, besteak beste. Iparraldeko euskaldun gehiena oso frantsesa da, historiaren bilakaerak tokiko euskaldunen nortasuna aldarazi zuen, euskal kontzientzia politikoa erabat deuseztuz.

Nazionalitatea eta hiritartasuna uztartuta daude Frantzian.

Hala ere, hastapenean hiritartasuna ez zen nazionalitatea. Ideia-nahasketa izan zen eta pixkanaka horrela bilakatzen joan zen. Frantziar iraultzaileek errepublikaz hitz egiten zioten Europa osoari, baina gero, ideien konfrontazioetan Europako beste estatuen kontra galdu zuten. Errepublika eta Frantzia kidekoak bihurtu ziren eta ondorioz, kidekotasun hori gailendu zen Hexagonoan. Hasierako asmoa ez zen hori, errepublika izaera zabaltzeko asmoa zuten Europan gaindi, hiritartasuna bakarra ezarriz. Nazioa ez zen tokian tokiko kulturaren ezaugarri nagusia eta bakarra. Jende gutxik daki, baina abiaburuan errepublikaren ideia ez zen Frantziarako soilik, Europa osorako izatea nahi zuten, baina ideia galdu eta frantses errepublika nazioa bilakatu da. Errepublikarra eta hiritartasuna gauza bera da. Haatik, Europako estatu guztiek eredu hori aintzat hartu zuten. Nazioa osatzeko elementu nagusia hizkuntza izan da, frantsesa da Errepublikaren hizkuntza bakarra. Euskal Herrian, errepublikarrek ziotenez, iraultzaren aurkakoek euskara hitz egiten dute, hemen eta hegoaldean.

Azken 50 urteetako Europaren eraikuntza gorabeheratsuak nola eragin du Frantziako kultura gutxituetan?

Europa eraikitzean estatuek tokiko kulturekin arazoak izan dituzte, orain be-

> *Euskal munduak aniztasuna etengabe sustatzea, erabat naif edo inozo iruditzen zait”*

> *“Herri txikiagotu batek erromantizismo gutxieneko bat bizi behar du”*

rriz, estatuentzat beste arazo bat dago urrunetik heldu diren komunitateekin. Alta, tokiko kulturak eta kanpotik heldu diren gutxiengoen kulturak ez dira hein berean hartzen. Interes politikoak direla eta, modu irekiagoan hartzen dituzte kanpotarrak tokiko herrialdeen kultura baino, hobeto onartzen dituzte, konparazione, bretoiaren, katalanaren edo euskaldunena baino. Frantziako Errepublikarentzat tokiko kulturak atzerakoiak dira, aldiz, Afrikatik etorritako kulturarekiko indar korrelazio politikoa mantentzen du, kolonialismoaren ondorioen eraginez, kultura horiek nolabaiteko errepazioa behar dutela dio.

Hortaz, ideologia errepublikar frantsesean, tokiko kulturekiko aldaketarik ez dago.

Egun, zailagoa da euskaldunontzat historian jasandako kolonialismoaren ordaina edo erreparazioa jasotzea, duela hamar urte etorritako etorkinentzat baino. Nondik dator hori, historiaz egindako irakurketatik. Antropologo frantziarrentzat, Bretainia, Katalunia edo Ipar Euskal Herria ez ziren kolonizatuta izan. Baina izan ziren.

Sektore batzuk, sozialisten eta ekologisten ingurukoak –intelektualak eta politiko batzuk– hasi dira onartzen bertako kolonialismoaren zantzuak nolabait, baina afera urrundik begiratzen dute, ez dute gai horretan sakon sartu nahi. Eguneroko jarduera politikoak agintzen du. Frantziako antropologiak ez du horri buruz hitz egiten. Nire esperientziatik dakit, horretaz hitz egiten baduzu Errepublikaren aurka ari zarela aurpegiratzen dizute.

Euskal komunitatea hizpide. Hiritartasun “bertikala” eta “horizontala” aintzat hartu dituzu. Azaldu hori amiñi bat.

Konparazionera: euskal elkarteek eta mugimenduek, alfabetatzearen bidez, euskal nortasunaren berreskurapenean lan handia egin dute. Jardun molde horrek eginen du euskaldunon nortasuna zinez tokikoa izatea. Nazio errekonozimendua izan gabe, hiritartasun bertikala gauzatu ezinean, hiritartasun horizontala eraikitzen ari da, jendeak parte hartzen du jendarteko ekimenetan, kanpotik etorritako hainbat jende ere horretan engaiatzen da: tokian tokiko ikastolen aldeko ekitaldietan, Korrikan eta berriki Euskaraldian. Azken urteetan, batzuetan kontraesanak agerikoak izanik ere, Ipar Euskal Herrian guraso askok seme-alabak euskaldunak izatea nahi dute, nahiz haiek frantses errepublikar izateari uko egin ez.

Kontraesanek ezaugarritzen dute pertsona, baita euskalduna ere.

Noski. Adibidez, Korrikaren karietara, halako batean “euskalduna” erabili beharrean, “euskaraduna” erabiltzen hasi zen, edota berriki “euskal hiztuna”. Gauza bera dira, ezta? Zergatik sortu dira hitz berri horiek? Euskalduna izendatzeko modua aldatu behar al da? Horren atzean badago beste kulturak errespetatzeko keinu gisako bat. Nire ustez, beste kultura errespetatzea baino, hemengo gizabanakoa errespetatu behar da. Pertzepzioa aldatu da, kanpoekiko errespetuz. Horren atzean, itxiak izateko beldurra dago. Duela 50 urte euskalduntzen zena *euskaldunberria* zen, eta orain berriz *euskaraduna.* Erdaldunari euskal mundua ez dela itxia agertu beharra zabaldu da: “Zuk gorde ditzakezu zure jatorrizko ezaugarriak hemen bertan”, esaten zaio. Baina nolatan itxia? Sinpleagoa da: “Euskal Herrian euskaraz hitz egiten da”, esan behar zaio.

Euskaldunentzat hiritartasuna marjinetan dagoen esperientzia da. Hiritartasuna lortzeko marjinalitatearen aurka borrokatu behar da. Nola?

Irakasle bezala ikasleei esan ohi diet, euskal nortasuna osatzen dela erantzunik gabeko bi galderatan: “Euskal hizkuntza noizkoa da?”. Eta: “Hizkuntza hau hitz egiten duen giza taldearen jatorri ezezaguna nondik dator?”. Euskal jendarteak galdera horiek egiten jarraitu behar du. Erantzunik gabekoak dira, zientifikoki ez dute erantzunik. Baina, galderek herri dinamika bizirik atxikitzen dute. Funtsean, euskal kulturarekiko atxikimendua bizirik dago bere egoera berezia dela eta. Iraunkortasuna da euskal nortasunaren euspen nagusia. Marjinalitatean bizi da, ez dauka bertikaltasunetik emandako hiritartasun ofiziala, baina badu gizartetik datorkion hiritartasun horizontala. ●

EUSKARA IPAR EUSKAL HERRIKO UDALETXEETAN

Neurriak hartzeko deia hautetsiei

Ipar Euskal Herriko herriko etxeetako hauteskundeen bezperan, *Hizkuntza eskubideak bermatzeko protokoloa: garapena herriko etxeetan* txostena aurkeztu diete Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak eta Euskal Konfederazioak hautagaiei. Ofiziala ez bada ere, euskararen aldeko hizkuntza politika ausartak eta eraginkorrak gauzatzeko aukerak daudela dio euskalgintzak eta bide horretan laguntzeko xedez osatu dute txostena.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Lege babesaren eskasa ez dadila izan euskararen aldeko aitzin urratsak ez emateko estakuru". Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluaren eta Euskal Konfederazioaren izenean Peio Jorajuriak herriko hauteskundeetarako hautagaiei luzatu hitzak dira. Euskarak ez dauka ofizialtasunik Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan, baina nahia izanez gero eta neurri ausart eta eraginkorrak harturik, euskal hiztunak euskaraz bizitzeko eskubidea bermatu daiteke herriko etxeetan ere.

Hizkuntza eskubideak bermatzeko protokoloa: garapena herriko etxeetan deitu txostena dute landurik Kontseiluak eta Euskal Konfederazioak. Baionako Merkataritza eta Industria Ganberan iragan otsailaren 6an aurkezturiko dokumentua. Bertaratu ziren euskalgintzako hainbat eragile eta herri eta tendentzia politiko ezberdinetatik etorritako hainbat hautagai. Hain zuzen, martxoaren 15 eta 22an izanen dira herrietako hauteskundeak eta testuinguru horretaz baliatu nahi du euskalgintzak euskararen aldeko bermeak lortzeko: euskararen garapenaren aldeko hizkuntza politika planifikatuak abian ezartzeko konpromisoak nahi dituzte hautagaien partetik. Hots, herritarrei euskarazko zerbitzua eskaintzeko eta herriko etxeko langileei euskaraz lan egiteko aukera emateko neurrien hartzeko engaiamenduak nahi dituzte. Konpromisoa hartu duten hautagaien zerrenda plazaratuko dute bozketen lehen itzulia aitzin.

Hitza gauzatzeko bidean lagungarri izanen zaie *Hizkuntza eskubideak bermatzeko protokoloa: garapena herriko etxeetan* txostena. Funtsean, horretarako dute sortu. "Hizkuntza politika eraginkorra eta ausarta egin nahi duen herriko etxearentzako tresna bat da" Kontseiluko Haizpea Abrisketaren hitzetan.

TRESNA BAT ESKURA JARRIZ

Nahi duenak tresna mamitsua eta interesgarria dauka esku artean. Hiru multzotan banaturik dituzte neurriak: Zerbitzuak eta prozedurak euskaraz eskaintzeko urratsak, komunikazio jarduerak euskaratzekoak eta langileei euskaraz lan egiteko bidea segurtatzeko neurriak. Horrez gain, harremana duen beste esparruetan –hezkuntza guneetan, eremu sozioekonomikoan, hedabideetan, onomastikan eta kulturan– euskara txertatzeko aukerak ere zerrendatzen dituzte.

Egin dezaketenaren adibide konkretuak azaldu zizkieten aurkezpenean egondako hautagaiei.Dokumentuan azaltzen den neurri zerrenda luzea izaki, aurkezpenean argi utzi zuen Kontseiluko Paul Bilbaok: "Herriko etxe bakoitzak bere egoeraren arabera definitzen ahalko du zein neurri edo esparru landu, dokumentuak aukera ematen digu lanketa integrala egiteko edo eremu zehatz bateko politikak definitzeko". Neurriak hartzearekin batera, garrantzi handia du instituzio horrek argiki eta ofizialki aitortzea euskara herriko hizkuntza dela eta hizkuntza-plangintza baten bidez gauzatzea adierazpena: "Euskararen erabilpenak herriko etxe osoaren xede transbertsala izan behar du, ezin da izan bakar batzuena", zioen aurkezpenean Maddi Etxekopar AEK-ko ordezkari eta Euskal Konfederazioko kideak. Sei urteko kargualdia izanen du herriko kontseiluak hartu engaiamenduak betetzeko.

Euskararentzako ez da lur aberatsa esparru instituzional hori, frantsesa izaki hizkuntza ofizial bakarra, gehiegitan hitzez hitz betetzen ari direlako Frantziako Konstituzioko 2. artikulua. Baina ez da ere basamortu mugagabea eta euskaraz diharduten herriko etxeak ere badaude. Gutxi, baina badaude. Beti, derrigor frantsesari eman behar zaion tokia errespetatuz, baina euskara ere txertatuz egunerokoan.

TESTUINGURUA ALDE

Euskararen aldeko hizkuntza politikak adosteko eta bozkatzeko testuingurua alde dutela errepikatu zuten behin eta berriz aurkezpenean. "Baldintza onak ikusten ditugu hizkuntza politika planifikatuak gauzatu ahal izateko". Batetik, posible dela frogatzen diguten adibideak dauzkagulako. Bestetik, Euskal Herigune Elkargoa eta Euskararen Erakunde Publikoaren babesa ukaiteak "aukerak biderkatzen" dituelako. Adibide gisa, 2012an EEPk sortu eta gaur egun Euskal Herigune Elkargoak kudeatzen dituen hobekuntza hitzarmenak badira. Kontratu horien bidez, pausoz pauso zerbitzuak elebidunak bilakarazteko engaiamendua hartzen dute herriko etxeek. Publikoarekin harremanetan diren zerbitzuak elebi-

duntzeko asmoz, euskalduntzeko formakuntzak proposatzen dizkiete langileei, eta komunikazioa ere elebiduna izateko neurriak hartzen dituzte. Gaur egun, Atharratze, Azkaine, Baigorri, Donibane Lohizune, Donibane Garazi, Hazparne, Hendaia, Hiriburu, Itsasu (hitzarmena bukatu zaio), Kanbo, Maule, Senpere eta Uztaritze herriek dituzte izenpeturik. EEP aitzin, horretan hasia zen Euskal Konfederazioa. 2001 eta 2006 urteen artean izenpetu zituen gisa bereko hitzarmenak 42 herriko etxeekin.

Bestalde, oroit gara, 2018ko ekainaren 23an "ofizialki" aitortu zituela Euskal Hirigune Elkargoak euskara eta okzitaniera. Lehen aldikoz egiten zuen gisa horretako aitortza bat Ipar Euskal Herriko instituzio batek. Horrekin batera, hizkuntza politikarako proiektua onartu zuten hautetsiek, *Euskara jalgi hadi plazara* izeneko dokumentuaren alde agertuz. Postura horri esker, hizkuntza politikak "harmonizatzeko" aukeraz gain, urrats gehiago emateko "posibilitate berriak" ikusten dituzte Euskal Konfederazioak zein Kontseiluak. "Etxetik eskolaraino eraman genuen. Eskolatik nola jalgi orain herriko plazara? Herriko etxeetara?" galdera luzatu zien Abrisketak gaualdi hasieran hautetsiei. Ezker-eskuin harturiko engaiamenduak "biderkatzeko" eta "normalizatzeko" deia egin zien. Helburu hori iparrorratz harturik, euskalgintzak elkarlanean aritzeko gogoa eta asmoa daukala ere zehaztu zien: "Euskalgintza hor izanen duzue laguntzeko eta hizkuntza politika elkarrekin aitzinarazteko".

BAIONA ETA MAULERI SO

Euskalgintzako bi egiturek landu txostenaren aurkezpenean egon ziren, besteak beste, Jean-Rene Etxegarai Baionako auzapeza eta Michel Etxebest, Maulekoa. Bi errealitate: bata Lapurdiko hiriburua, bere 52.400 biztanleekin, bestea, Zuberoakoa, kasik 3.000 egoiliarrekin. Biek dituzte euskararen erabilpena sustatzeko neurriak harturik.

Maulek duela sei urte izenpetu zuen EEPrekin hitzarmena. Horri segi, sei langilek dute euskara ikasteko formakuntza jaso. Hala eta guztiz ere, 32 langileetatik bospaseik dute euskara mintzo; "arrunt guttik" Etxebestek aitortzen duenez. "Funtzio publikoa izanez, nahi duenak segi dezake formakuntza, borondate kontua da, ez da behartua". Ofizialtasun ezak dakar hori. Hala ere, azken hiru enplegatzeetan euskal hiztunak lehenetsi dituztela dio, komunikazioa elebitasunean egiten ari direla eta harreran euskara segurtatzen dutela gehituz. "Eta horretan segituko dugu".

Baionak berriz hizkuntza politika dauka adosturik eta bi euskara teknikari ditu. Bere kargualdian eramandako euskararen aldeko lanaz duen balorapena galdeturik, "zintzoki, balantzea ez da espero nuena bezain aberatsa, kritika nire buruari ere egiten diot". Hizkuntza politika "boluntarista" gauzatzeko bidean "zailtasun teknikoak eta pratikoak" kausitu izana deitoratzen du. Adibidez, Baionan gaskoia ere izateak ez du euskararen erabilpena errazten: "Ezin ditugu hiztun komunitate baten eskubideak kontuan ez hartu; hiruak erabiltzeak ikuspen eskasa dakar usu. Noski, horrek ez du aitzakia izan behar eta gainditu behar ditugu oztopo horiek". Dioenez, ez da nahikari politiko eskasagatik. Nahikari politiko hori Baionako euskal hiztunek gutti sendi dutela erran eta ondokoa erantzuten du: "erraten didazu ez dutela sendi, baina nik erraten dizut zintzoki, nahikaria hor dela, nitan baita nire ingurukoetan ere". Sei urte horietako esperientziatik ikasiko duela zehazturik, "helburu kuantitatibo argiak eta horiek betetzeko baliabideak" jartzeko konpromisoa hartzen du Baionako auzapezak. ●

TXOSTENAREN AURKEZPENA

Otsailaren 6an aurkeztu zuten dokumentua, Baionako Merkataritza eta Industria Ganberan.

Noski pentsioak bideragarriak direla”

JESÚS MARÍA SOUBIES

POR UN SISTEMA PÚBLICO DE PENSIONES LIBURUAREN EGILEKIDEA

Pentsionista, Forjas Alavesas enpresako langile ohia, Arabako Pentsionistak Lanean taldeko militantea. José María Aguirrerekin batera *Por un sistema público de pensiones. Ética, crítica y economía* (Pentsio sistema publiko baten alde. Etika, kritika eta ekonomia) liburua argitaratu dute Pamiela argitaletxean. Analisi ekonomikoa, etika eta politika uztartuz, pentsio sistema publikoa mantentzeko proposamen zehatzak luzatzen dituzte egileek.

ZIGOR OLEAGA DOS POR DOS

Zer helbururekin argitaratu duzue liburua?
Pentsionisten mugimendua hasiberritan, kalean eta jubilatuen artean askotan entzuten genuen: “Pentsionista asko gara, ez dago dirurik...”. Eta pentsatu genuen, “ba gure artean horrela bagabiltza, pentsa besteak...”. Ni hasi nintzen ikertzen eta idatzi batzuk egiten, horiek dira oinarria. Jose Marik xaxatu ninduen liburu forma eman geniezaien lanei, idatziak orraztu eta antolatu zituen.

Hitz egiten duzue ekonomiaz, baina baita politikaz eta etikaz ere. Pentsioen auzia horietatik zeini dagokio?
Hirurei. Ekonomia eraikuntza sozial bat da. Egon diren, dauden, eta egongo diren eredu ekonomiko guztiak funtsean banaketa sistemak dira, banaketa eredu jakin batzuk. Hori Adam Smithek zein Karl Marxek esan zuten.

Pentsioen aurka mundu osoko erasoa dagoela diozue, eta pentsio eredu berria hiru zutabetan oinarritu nahi dutela.
Esaten dute kotizazio arruntekin ez dela nahikoa, eta beste bi zutabe eraiki behar direla. Bata enpleguko borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeak (BGAE, edo EPSV bezala ezagutzen ditugunak). Enpleguzko BGAEa izateko enpresa batean egon behar duzu kontratatua, eta lan-hitzarmenak jaso behar du [EAEn soldataren %5,4a doa BGAEra]. Geroa, adibidez. Hirugarren hanka BGAE indibidualak dira, norbanakoak banku batekin sinatu ditzakeenak. Horiekin ez da ezer konpontzen, denontzako konponbide bat aldarrikatzen dugu.

Enpleguzko BGAEak lan-baldintza onenak dituen langileriaren %30arentzako soilik balio dutela diozue.
Enplegu bat ez ezik, nahikoa aurrezteko tamainako soldata izan behar duzu. Aldiz, soldaten taulan ikusten da [liburura jotzen du] enpleguen gutxiengoak soilik betetzen dituztela baldintza horiek. Jakina, betetzen dituztenak dira hain zuzen ere pentsio osagarrien behar txikiena dutenak. Eta gainera onura fiskalak ematen zaizkie. Teorian politika fiskalak desberdintasunak murriztu beharko lituzke, baina praktikan areagotu egiten ditu.

BGAEak onartu dituzten sindikatuekin kritikoak zarete.
Lau handiek onartu dituzte –ELAk, LABek, CCOO eta UGTk–, eta zuzendaritzetan daude. Txiki batzuek ere onartu dituzte, baina beste batzuek ez. Guk badakigu hori errealitate bat dela, baina erabaki hori hartzen badute behintzat diru hori haien eskutan hartu dezatela, eta bere erabileraren kargu egin. Kapitalaren mesedetan erabiltzen da egun. Diru hori gainera langileena da, nola egon daitezke ordezkatuta langileak eta enpresariak modu parekidean? Langileak 150.000 dira, enpresariak 3.300. Hori iruzurra da.

Boterearen indar-ideia nagusia da: “Pentsioak ez dira bideragarriak”. Zuek diozue badirela.
Noski direla bideragarriak. 1977tik honaino pentsioen kutxan sartu den diru guztia pilatuko bagenu, 800.000 milioi euro egongo lirateke aurreztuta. Zer gertatzen da? Aurrekontua osatzeko erabili dela urteetan, adibidez azpiegiturak eraikitzeko. Kontrara, emakumeen parekidetasuna ezarri balitz 1977tik aurrera, pentsioen sistemak porrot egingo

zuen hamar urtera. “Ez da bideragarria” esango lukete orduan ere. Parekidetasunari uko egin behar diogu orduan? Gauza da ez dutela ekonomiaz hitz egin nahi: “Ez ez, kontabilitatea, zenbakiek ez dute ematen”. Egia, ezer aldatu gabe zenbakiek ez dute ematen; aldatu ditzagun gauzak zenbakiek eman dezaten.

“Saldu” dizkiguten gezurrak desmuntatzen saiatu zarete.

Nagusiena da *baby boom*-aren garaiaren ondorioz egongo direla 15 milioi pentsiodun hemendik 40-50 urtera Espainiako Estatuan. %60tik gorako hazkundea litzateke hori. Noski haziko dela kopurua, baina gure proiekzioek ez dituzte zenbaki horiek ematen. Izango dira gehienez ere 13 milioi, %24ko hazkundea.

Arazoak daudela onartzen duzue, halere. Garrantzitsuenetakoak biztanleriaren zahartzea eta teknologiaren bilakaerak lanean duen inpaktua. Zer proposatzen duzue?

Gaur arte makinak erremintak izan dira, langileari lagundu diote lana egiten. Baina robotikarekin –nik robot asko jarri dut– makina da lan guztia egiten duena. Bideoetan ikus daitezke robotak robotak egiten, kate guztian gizakirik ez, pertsonaren bat hortik noizean behin. Batzuek proposatzen dute makinek zergak ordaintzea. Ez. Makina batek zure lana bere gain hartzen badu, hartu beharko du bere gain zure soldata. Moldatu beharko da marko arautzailea makinei lege bat ezartzeko: “Langileen eta makinen estatutua” edo antzeko zerbait. Bestela, zertarako nahi izango duzu industria bat zure herrian, inongo lanposturik sortzen ez badu? Herri sarreran jarri beharko litzateke kartela: “Industria ez, eskerrik asko”.

> *“Egia, ezer aldatu gabe zenbakiek ez dute ematen; aldatu ditzagun gauzak zenbakiek eman dezaten”*

Nagusien zaintzarako enpleguak edo sorkuntzari loturikoak biderkatu behar dira. Hala ere, gero eta pertsona gehiago egongo da enplegurik gabe edo tarteka soilik izango duena. Luzarora oinarrizko errentaren bat ezarri beharko da, pertsonek enplegua ez duten bitartean gutxieneko eskubide sozioekonomiko batzuk bermatuta izan ditzaten. Genero arrakalarekin amaitu behar da. Migranteak etortzea behar dugu. Guztiok irabaziko genuke. Etorri etorriko dira, kontua da ez egitea morroi bezala.

Egungo pentsio sistema iraganeko kontratu sozialarekin lotua dagoela diozue, “kontsentsu berri” bat behar dela. Zeintzuk lirateke horren oinarriak?

Idazteke dago, baina gainezka egin dute alarma guztiek –klima, migrazioak, pobrezia...–. Ekonomia da zer, zenbat eta nola ekoizten den. Hiru gakoak ez badira berritzen ez gara zulotik aterako. Frantsesek esaten dutena, “hilabete bukaera, munduaren bukaera, borroka berdina dira”.

Aurreko kontratu soziala “iraultzaren mamuaren” testuinguruan onartu zuen kapitalak: bloke sobietarra sendo munduan, mugimendu iraultzaile

indartsuak mendebaldeko herrialde kapitalistetan. Indar harremana nabarmen aldatu da...
Horregatik diogu egungoa dela Chicagoko borroka gaurkotu bat [8 orduko lanaldia eskatzeko 1886an Chicagon piztutako langile borrokak]. Iraungo ditu ziur aski urteak, Europa mailan behintzat. Greba orokorraren harira entzun ditugunak hedabideetan diktadura garaikoak dira, zuek ez zineten jaio baina gu bai. Gasteizko grebetan faxistek esaten zituzten berberak, intoxikatzen, manipulatzen.

Kontsentsu berria aldarrikatzen duzue. Kontsentsua borondateari lotzen zaio egun, bake sozialari, bide instituzionalari... Aldi berean matxinada defendatzen duzue. Nola uztartzen dira biak?
Indar harremana da gakoa. Eskubidea eta indarra lotuta doaz historikoki. Guk ez badugu indarrik jartzen mahaian, ez dugu deus lortuko. Hanka bat kalean eta bestea instituzioetan. Bestela ez dugu zer eginik. Gertatzen da jendeari burua garbitu diotela eta gero eta zailagoa da. Baina gu hasi ginenean askok esaten ziguten, "1.080 euro, nora zoazte?" Eta orain, aldiz, "bada, izan beharko du". Emakumeen berdintasunarekin berdin.

Zer balorazio egiten duzue Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak garatutako politiken inguruan?
Eusko Jaurlaritzak ez du ezer onik egin. "Berdintasuna, berdintasuna, berdintasuna", errepikatzen du, eta ateratzen duen lege bakoitzak ezberdintasuna areagotzen du. Oinarrizko Errentarekin esaterako atzerapausoak eman dira, gero eta murriztuago dago. Caritasek edo Elikagaien Bankuek esaten dute behartsuak gero eta gehiago direla, Jaurlaritzaren arabera, aldiz, gero eta gutxiago.

Trantsizio garaian borrokatu zen belaunaldikoa zara. Nola ikusten da egungo errealitatea orduko bizipenetatik?
Asko aldatu da. Gure garaian lan munduarena soka lodia zen, bertatik tira egin eta jendarte osoa ateratzen zenuen kalera. Egun hori ez da existitzen. Langileria ez da existitzen errealitate homogeneo bezala. Noski existitzen dela, zapalduak ere bai. Baina orduan gutako bakoitzaren biografiak oso antzekoak ziren, gaur egun ez. Soka asko daude, eta batera ez badugu tiratzen ez dugu ezer egiterik. Norbaitek pentsatzen badu hau sindikatuek konponduko dutela, oso galduta dabil. Horregatik da oso egokia Gutun Sozialaren sorrera, oso gaurkoa. Soka asko daudelako hor.

Pentsionisten mugimenduak protagonismo handia izan du U30eko greba orokorrean. Presio handia jasan duzue horregatik.
100 herritan biltzen gara astelehenero, baina ezin dugu gobernuen aurka nahi beste presio egin. Edo zabaltzen gara eta mugimendua elikatzen dugu edo hil egiten gara. Hau da mundu aldrebesa, 70 urteko pertsonak kalean. Baina duen garrantziaz ohartuta gaudenez eutsi egiten diogu. Itxoiten gaude ea lekukoa hartzen diguten sindikatuek, gazteek, feministek, baina inork ez du hartu nahi. Eta nahi dutenek hartu nahi dute mugimendua zapuzteko. Batzuek diote gutxiengoa garela pentsionisten artean, baina indarra kalean guk dugu. EAJren sokakoek eta Madrilera begira ari direnek komunikabideetan dute indarra, bozgorailua jartzen dietelako.

Grebara batzeagatik mugimendua zatikatu duzuela esan dute eskuinetik hasi eta Podemos edo UGT eta CCOOraino.
Hori gezur borobila da. Bai, gutxi batzuk joan egin dira. Hori gertatzen da greba guztietan. Lantegietan ere beti dago %5eko eskirol portzentaia bat. Horrek ez du esan nahi langileria zatituta dagoenik. Egiten ditugun bilera guztiak aktetan jasota daude. Eta ikus daiteke nola talde txiki hori lehen bileratik ari den gurpiletan makila sartu nahian. 2018ko apirilean prentsaurrekoa eman zuten berberak dira, esanez maiatzeko mobilizazioak ez zituztela babesten EAJk eta PPk pentsioen inguruan lortutako akordioak nahikoa zirela.

Gaur egun ezkerra eskuina da. CCOO eta UGT frankismoko tertzio sindikalaren pareko ari dira: erabakiak patronalarekin batera eta jendearen baimenik gabe hartzen dituzte. PSOErena lotsagarria da, hori ez da ezkerra. Podemosek berak botatzen dituenak beti ez dut esango, baina askotan lotsagarriak dira. Kalean ere, hartu ezkerreko eta eskuineko pertsona bana, eta antzeko bizimodua eta baloreak dituzte biek. Alderdiak atzetik dabiltza mugimendua kontrolatu nahian, baina ezin dute zeharkakotasun handikoa delako. Gasteizko mobilizazioetara VOXeko pentsionista batzuk etortzen dira, EAJkoak, denetarik. Kalean gauden bitartean ezin izango diote edozein itxiera eman pentsioen auziari.

Pentsionisten mugimenduak pertsona zaharren autoestimua berreskuratu duela nabarmendu duzue liburuan.
Autoestimua berreskuratu, eta jendarteari adinduen beste ikuspegi bat eman. Lehen zen, "zahar hauek...", hori aldatu da. Eta gainera bilakatu gara mugimendu baten antolaketarako eredu bat. ●

Partenoia ez du denborak desegin

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Atenas, K.a. 448-432. Akropoliaren gailurrean Iktinos, Kalikrates eta Fidias arkitektoek diseinatutako tenplua eraiki zuten, Atena Partenos jainkosari eskainia. K.o. VI. mendean, Partenoia eliza kristau gisa erabiltzen hasi ziren. 1456an otomandarrek greziar tenplua meskita bihurtu zuten, eta albo batean minarete bat erantsi zioten, handik otoitzerako deia egiteko. Bi milurtekoz erlijioek nahiko ondo tratatu zuten eraikina. Baina handik mende gutxira, hain zuzen, erlijio gerrek eragingo zuten Partenoiak sekula izan duen kalterik handiena.

1683 eta 1699 urteen artean austriarrak, poloniarrak, errusiarrak eta veneziarrak otomandarren aurka aritu ziren. Morea konkistatu ondoren, veneziarrek Atenas hartu nahi izan zuten eta musulmanak bolborategi gisa erabiltzen ari ziren Partenoia inguratu zuten. Otomandarrek uste zuten tenpluaren barruan seguru zeudela, inork ez zuelako munduko monumenturik garrantzitsuena bonbardatuko. Oker zeuden. 1687ko irailaren 26an bonba veneziarrek eraikina leherrarazi zuten.

1806an Thomas Bruce Elgineko kondeak, monumentuaren egoera tamalgarria ikusita, oraindik osorik zeuden marmolezko eskultura eta erliebeak "salbatzea" eta Ingalaterrara eramatea erabaki zuen. 1939az geroztik, Londresko British Museumen daude ikusgai eta "Elginen marmolak" esaten zaie haren omenez. Lord Elginek fede onez jokatu zuela eta nagusikeria kultural eta moral kolonialista berak asmatu ez zuela onartuta, hau da, juzku anakronikoak saihestuta ere, Partenoiko eskulturekin egindakoa espoliazioa izan zela inork gutxik jartzen du zalantzan.

FRANCESCO FANELLI

1687AN VENEZIARREK PARTENOIA LEHERRARAZI ZUTEN. HANDIK 200 URTERA, ESPOLIAZIOAK ARE GEHIAGO SUNTSITU ZUEN TENPLUA.

Horietako bat da British Museumeko zuzendari Hartwig Fischer. Greziako Gobernuak eta hainbat eta hainbat eragilek artelanak jatorrira itzultzeko egindako enegarren eskaerari erantzunez, zera esan zuen iaz: "Marmolak testuinguru berri batean egotea aukera bat da, sormen-ekintza bat". Partenoiko Eskulturak Bateratzeko Nazioarteko Elkarteko presidente George Vardasek berehala erantzun zion: "Benetan, zer du sormenetik tenplu bat suntsitzeak eta herrialde baten Antzinaroko historiaren oinarriak arpilatzeak? ●

IPHES

Paleolitoko grabatuak Tarragonan

Font Major kobazuloa (Tarragona, Katalunia) 1853an aurkitu zuten eta urte asko dira bertan arkeologoak lanean ari direla. Iazko urriaren 30ean, ekaitz bortitz batek inguru haietan uholdeak eragin ondoren, Rovira i Virgili unibertsitateko Josep María Vergès ordurarte esploratu gabeko eremu batean sartu zen, eta duela 15.000 urte inguruko 100dik gora grabaturekin egin zuen topo, orain arte Katalunian aurkitu diren zaharrenak. Dagoeneko hasi dira kobazuloaren zati hori 3D teknologia erabiliz eskaneatzen eta, ondoren, pieza bakoitzaren bereizmen handiko irudiak egiten hasiko dira. Horri esker "Kataluniako arkeologiaren historian mugarritzat" jo dutena behar bezala aztertzeko aukera izango dute, Madeleine aldiko grabatu sorta kaltetu gabe. ●

AMAGINARREBA KUKULIKORDEKA

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Guduekin aberastu zen Hermann Gruson-ek XIX. mendean europan zen kaktus bildumarik handiena zuen.

Mundu epel guztian erruz zabaldutakoa, Mexikoko erdialdetik datorren landarea da, baina egun bertako ekosistema naturaletan iraungitzeko arriskuan dagoen galzoriko espezietzat ematen dute. Izen ugari du, baina bat benetan xelebrea: amaginarrebaren eseraulkia.

Echinocactus grusonii bezala sailkatua dago. 1891n, Mexikotik Alemaniara eraman zuen Heinrich Hildmann botanikari eta lorazainak, Berlin inguruko Birkenwerderen zuen landare mintegira. Kaktuszale porrokatua zen, eta bere mintegia landare horiei emana zuen. Sailkatu eta izen zientifikoa eman zion horri ere: *Echinocactus grusonii*. *Echino*k trikua esan nahi du, beraz triku itxurako kaktusa, eta *grusonii*, Hermann Gruson asmatzaile eta arma enpresaburu alemaniarraren ohorez. Guduekin aberastu zen Hermann apareju hau, kaktuszalea izan bera ere; arantzadunen apetak eta gutiziak akuilatuta, berotegi berezi bat eraiki zuen bere landare kuttunak eskuera izateko. XIX. mendearen amaieran, Europan zen kaktus bildumarik handiena eta ezagunena zuen. Hil zenean, Magdeburg herriari eman zion doaintzan, berari eusteko diru mordoska eder batekin batera. Gero bertan sortu zuten Grusonschen berotegien egitasmoa, non gaur egun oraindik ezagutu daitekeen munduan galzorian dauden espezieen bilduma izugarri bat.

Hermann honek kaktusen ikerketarako dirua eskuzabal jarriko zuen bere garaian; izan ere, genero oso bati ere bere izena eman zioten: *Grusonia*. Botanikari eta lagun izango zuen Karl Moritz Schumannek, Alemaniako Kaktusen Elkarteko akademiko eta Berlingo Museo Botanikoko zaintzaile izan zenak, jarri zion izen hori beste kaktus multzo bati. Botanikari eta kaktuszale hor ibiliko ziren bere garaian zein baino zein beregana gehiago arrimatu. Batek espezie baten ohorezko izena jarri, beste batek genero oso bati...

Kaktus tartean, ordea, arrimatze horietan kontuz ibiltzen ahal ziren! Itsumandokako jokoan bezala, begiak estalitakoari galdetzen zaio:

– *Itsu-kapela, non duk andrea?*
– *Sasian galdu* –ihardesten du itsutuak.
– *Bila bertzea*.

Andreaz beharrean amaginarrebaz galdetuz gero, itsututa *Echinocactus grusonii* kaktusean eser daiteke. Ederki damutuko litzateke kukulikordeka hasi izanaz, landare horren aldamenean...

Izen zientifikoaren zergatia argi dago, zilar dago; baina, noren errain edo suhi ote zen "amagiarrebaren eseraulkia" izena jarri ziona? ●

EH BIOERAIKITZEN

MATERIAL NATURALEKIN ERAIKITZEN

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

"Material naturalak, berrerabiliak eta birziklatuak erabiltzea eta diseinu bioklimatikoak egitea dira bioeraikuntzako oinarrizko irizpideetako batzuk".

Urtebete inguruko ibilbidea du Bilbon jaiotako EH Bioeraikitzen proiektuak, nahiz eta lehenagotik alor horretako UKnatura kooperatiban ziharduten bertako zenbait kidek. "Hainbat proiektu aurrera atera ditugu jadanik, esaterako, baserri baten eraberritze lanetan parte hartu genuen duela gutxi material naturalak erabiliz", azaldu du Antxon Alkalde proiektuko kideak.

EREDU JASANGARRIAGOETARANTZ

Gaur egun nagusi den eraikuntzak ingurumenean eragiten dituen kalteez jakitun, bestelako eredu baten aldeko apustua egin dute proiektuko kideek. Ahalik eta ingurumen-inpaktu txikiena eragitea eta habitat osasungarriak lortzea dute helburu. "Bioeraikuntzako oinarrizko irizpideen artean daude material naturalak, berrerabiliak eta birtziklatuak erabiltzea, baita diseinu bioklimatikoak egitea ere", azaldu du Alkaldek. Energia eraginkor eta berriztagarriak erabiltzea bultzatzen dute.

Zein dira bioeraikuntzan darabiltzaten material ohikoenak? Buztina edo lurra, lastoa, egurra eta karea, besteak beste. "Karea, adibidez, antzinan asko erabiltzen zen eraikuntzan inguru honetan, baina zementuaren eraginez desagertzen joan da. Guk esfortzua egiten dugu material horiek berrerabili eta berreskuratzeko". Alkaldek ez dio uko egiten eraikuntzan bestelako materialak ere erabiltzeari, ahal den guztian material naturalak erabiltzea da asmoa.

TEORIAN SAKONDU ETA PRAKTIKARA ERAMAN

Profil ezberdinetako taldea batu da EH Bioeraikuntza proiektura: arkitektoak badaude tartean, baina baita psikologo bat, arte ederretako eta errestaurazioaren mundutik datorren beste bat eta nekazaritza eta mendi ingeniari bat. "Gu gara proiektuaren talde motorra, baina inguruan badugu sare zabalago bat gure egitasmoetan parte hartzen duena". Edonork har dezake parte EH Bioeraikuntzatik planteatzen dituzten ekimen eta tailerretan, edozein dela ere beren ezagutza maila.

"Norbaitek bere etxea eraberritzeko informazioa behar badu, edota proiektua bakarrik aurrera eramatera ez bada ausartzen, gure lantaldeak lagun diezaioke". Izan ere, ezezagutzaren eta beldurraren ondorioz horrelako egitasmo asko egin gabe geratzen direla uste du Alkaldek. Areto barruan nahiz kanpoan, naturan, antolatzen dituzte ikastaro eta tailerrak. Horien inguruan gehiago jakiteko aski da ehbioeraikitzen.eus webgunean sartzea. ●

ARGIAKO ERREDAKTOREEK ERABILTZEN DITUZTEN HIZKUNTZA ERREMINTAK

Idazkeran laguntzeko tresnak sarean

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Testua aberasteko armiarma.eus atariko "euskal lokuzioak sarean" loturara jo dezakegu. *Berria*-ko estilo liburuaren atzean ere lan handia dago.

AGENDA

BERDEA DA MORE BERRIA LIBURU AURKEZPENA

Liburuaren egile Onintza Irureta eta Gipuzkoako zaharren egoitzetako grebalari bat arituko dira mahai-inguruan.

Otsailak 28 18:00etan
Mundaka Udal liburutegian

Martxoak 14 17:00etan
Altzo Batzarremuñon

Bakoitzak ditu bere errekurtsoak idazkera zuzena erabiltzeko edo testua aberasteko. Euskal prentsan ere bai. Hizkuntza garatzen eta moldatzen doa. Garaian garaikoa ez da elikaduran bakarrik aplikatu daitekeen formula, hizkuntzak ere garaian garaiko arauak eta moldeak izaten ditu, eta kazetariek jakin behar dute garaian idazten. Ze trikimailu erabiltzen dituzte ARGIAko lagunek "ondo" idazteko? Ezagutzen nituen batzuk, besteak berriak zaizkit; baina kontutan hartzekoak dira zerrendako erremintak, ez baita kazetaria izan behar hauek erabiltzeko.

Zumaian 2019. urtea amaitu aurretik antolatutako kontzentrazio egunetan ARGIAko lankideei Onintza Irureta kideak azaldu zizkien zer tresna dauden erabilgarri sarean euskara egoki eta modu aberatsean idazteko. Azalpen huts bat baino, izan zen informazio-truke bat. Bilkurako gidariak botatako pistez gain, beste kideek ere gehitu zizkioten tresna batzuk eta denen artean osatu zuten, nolabait, zerrenda.

ZER DA SAREAN TOPA DEZAKEGUNA

Askori dagoeneko ezaguna egingo zaigun 'Xuxen' zuzentzailea daukagu, alde batetik. Honek zuzenduko dizkigu ortografia akatsak eta abar.

Oso azpimarratua izan zen *Berria* egunkariaren estilo-liburua. Askoren errekurtso nagusia. "ARGIAren iparra da", azaldu du Iruretak, "lan handia dago honen atzean, eta eskertzen da". Baliagarri da, esaterako, gaur egun horrenbeste aditzen diren ingelesezko hitzak itzultzeko (*vallenato* edo *thrash* bezalako musika estiloak, *reality show* bezalako hitzak), munduko herrialde baten bilaketa eginez gero, oinarrizko informazioa jasotzen duen fitxa teknikoak ditu...

Euskaltzaindia da arau-emaile nagusia eta askok egiten dute bilaketa hemen, batez ere, toponimiari lotua, edo hitzak -a itsatsia duen edo ez jakiteko...

Euskalterm terminologia zehatzetarako asko erabiltzen dute batzuk. Esaterako, nola idazten da euskaraz RGI gaztelerazko terminoa? Nola idatzi Instituto Nacional de Estadística (INE)? Horrelako galderen erantzunak badaude bertan.

Testua aberasteko armiarma.eus atariko "euskal lokuzioak sarean" loturara jo dezakegu. Hitz bat behin eta berriz errepikatzen ari zarenaren sentsazioa badaukazu, hor duzu konponbidea.

Euskalbar instalatuta dute beste batzuek beren ordenagailuetan. Horrek eskura jartzen baitizkie hamaika hiztegi, itzultzaileak direla, sinonimoak direla...

Tresnak ezagutzea da garrantzitsua, hor daudela jakitea. Gero, bakoitzak aukeratu dezala gustukoena. Baina ez daukagu aitzakia gehiegirik dagoeneko oker idazteko. ●

“Buru pentsalariak falta dira hor goian, euskaratik pentsatuko dutenak”

ANJEL LERTXUNDI
idazlea

Egunero egiten du Zarauztik Getarirako joan-etorria. Goizean goiz eta oinez, pauso azkarrean. Ibilian-ibilian, 25 urtetik gorako ohitura du hori. Ibilian-ibilian, ez horren pauso azkarrean, baina bai konstantean, mende erdiko ibilia egin du literaturan, *Hunik arrats artean* (1970) lehen lana plazaratu zuenetik. Itzulpengintzari buruzko saiakera metaliterarioa du azken alea, *Itzuliz usu begiak* (Alberdania), iazko udazkenean argitaratua. Begiak atzerantz apenas itzuli gabe egin dugu bere eguneroko ibilbidea, eta solastatu gara itzulpenaz, baina baita ibilian atera diren gainerako gai eta ertz askotarikoez ere: literaturaz, ibilbide pertsonalaz, euskaraz, denbora garaikidearen denbora faltaz eta beste. Itzulingururik gabe.

GORKA EROSTARBE LEUNDA
DANI BLANCO

Zarauzko (Gipuzkoa) kaleak hutsik dira. Herriak itxura fantasmagorikoa du orduotan. Goizeko sei eta erdiak dira eta hotz egiten du. Urtarrileko goiz grisa da. Itsasoa bizi dago, baina ez haserre. Hura entzuten da soilik. Pauso azkarrean eta burua txano beltzez estalita iritsi da Narros jauregiaren parera Anjel Lertxundi (Orio, Gipuzkoa, 1948); *Azkenaz beste* (1996) nobelako azken partea jauregi horretan kokatzen da, hain zuzen ere. “Pertsonaia nagusia itsasoan sartzen da, jauregitik aterata. Belaontzi bat ikusten da eta ez dakigu hara doan edo bere buruaz beste egiten duen”. Malekoitik hasi dugu bidea. Ez dugu itsasoan sartzeko asmorik, idazleak egunero egiten duen joan-etorria egitea dugu miran: joan, egon eta itzultzea. Ilun da oraindik. Lertxundiren hitzek argituko dute bidea, ordea. Hiru zati izan ditu elkarrizketa -txangoak. Zarauztik Getariarakoan eta Getariatik Zarautzerakoan, ibilian gindoazen bitartean, modu libreagoan solastatu gara, ibiltzearen eta sorkuntzaren arteko harremanaz, kazetaritzaz, poesiaz, humanismoaren galeraz, susmopeko gizarteaz, eta beste. Elkarrizketa osoa sarean irakurri ahal izango da, hirutan banatua.

Hemengo honetan, behin Getariara iritsita, oraindik kanpoan ilun dela, bertako kafetegi batean egindako elkarrizketa irakurri ahal izango da, enkontruaren ardatza bilduko duena: *Itzuliz usu begiak* liburuaz, eta handik eratorritako hainbat kontuz aritu gara.

Anjel Lertxundik eztabaida asko izan al du Berbelitzekin?
Nire *alter-egoa* ere izan liteke Berbelitz. Aspalditxo sortu nuen pertsonaia da, *Senez* aldizkarirako eta... eta sinpatikoa egiten zait. Hizkuntza hartzen du ez soi-

lik tresna gisa, baizik eta dibertimendu modura ere, hizkuntza bizi duelako modu jostari batean. Eta hori garrantzitsua iruditzen zait, ez soilik itzulpengintzaren munduan, baita hizkuntzaren irakaskuntza munduan ere. Egia da hizkuntza estruktura bat dela, baina gora -behera formalez harago, jabetu behar dugu gauza malgua dela, ez hormigoizko egitura bat.

Noiz jabetu zinen itzulpengintzaren garrantziaz?

Nik uste dut itzulpen batek lehen aldiz inpaktatu ninduela Irene Aldasorok itzulitako James Joyceren *Artistaren gaztetako portreta*-rekin. Asko maite nuen liburu hori, eta sekula ez nuen imajinatuko euskaraz irakurri ahal izango nuenik. Irakurri nuen eta gaztelaniazkoa baino askoz familiarragoa egin zitzaidan. Liburu horretan dagoen hizkuntzaren jolasa euskarara ekarria dagoelako, eta natural -natural funtzionatzen duelako. Pertsonaietako batek galdetzen du: "Zer ba?" Eta besteak erantzun, "zerba patatekin", edo halako zerbait. Euskararen espresibitatea erabiltzen du erabat, ingelesetik itzultzeko. Ingelesezkoa aldatu eta traizionatu egiten du, onerako traizionatu ere. Itzulpenean ikusten duzunean originaltasuna, liluratzen zaitu: originaletik ekarri eta originala egin. Horra itzulpena.

Zerikusia izan dezake horrek zure hainbat idatzitan aipatu izan duzun beste jolas batekin ere, partikularraren eta unibertsalaren arteko harremanarekin.

Guk jartzen dizkiogu harreman horri langak. Ez dago ezer unibertsalik sostengu partikularrik ez duenik. Ugarienak ez du esan nahi unibertsala denik. Unibertsala bere horretan nahiko termino etereoa da. Unibertsala izateak ez du esan nahi bakarrik denen kontuak direnik, baizik eta denen kontuak transmititzeko gai izatea ere bai. Nik dakidala ingelesak oraindik ez dira horretara iritsi. Ugaria eta unibertsala bereizi egin behar dira kontzeptu bezala. Globalizazioak ez dauka zerikusirik unibertsaltasunarekin, bi gauza oso diferente dira. Nik uste askotan nahastu egiten ditugula.

Eite ekonomizista hartu du globalizazioak.

Bai, eta diskurtso guztiak horren arabera antolatzen dira, partikulartasunaren kontra, alegia. Globalizazioak dakar partikulartasuna hondatzea, ez integratzea.

Zure ibilbidean itzulpenek beti eman dizute giltzarririk?

Nire ibilbideari erreparatuz gero, *Ifrentzuak* saileko liburuen atzean dauden idazleak desberdinak dira azkeneko liburuen atzean daudenekin alderatuz. Esaterako, oso desberdinak dira erreferenteak *Azkena beste*-n edo *Horma*-n (2017). *Argizariaren egunak* (1998) liburuarekin gertatutakoa adierazgarria da. Liburuaren erdia baino gehiago idatzirik nuenean izan nuen krisi handi bat. Kezka honakoa zen: "Zer arraio idazten ari haiz, hori lehen ere badakik egiten-eta!". Eta, justu une horretan irauli egiten da nobela, pertsonaia erotu-edo egiten baita… Nobela berri bat sortzen da, hasierako asmoarekin inolako antzik ez duena. Bestelako kasuak ere badaude: idatzitakoa ez gustatu hasieran, eta ingurukoek eta esaten dizutenagatik aurrera egitea.





Adibidez, *Zoaz infernura, laztana* (2008) liburuarekin gertatu zitzaidana. Hori berez gidoi bat zen... eta konbentzitu egin ninduten argitaratzeko, nahiz eta erabilitako arrazoiekin zalantzak izan: "Euskarak ere behar ditu halakoak" eta gisakoak. Arrazoi duinak dira euskal komunitateari begira, baina artistikoki niretzat ez da nahikoa. Eta antzeratsu *Zorion perfektua*-rekin (2002). Liburu hori berez idatzi nuen haur eta gazte literaturarako. Gero egia da funtzionatu egin duela, eta helduentzako sailean argitaratu ez balitz ez lukeela izango izan zuen oihartzuna, baina nire gogoan beti gelditzen da batez ere ibilbide artistikoa. Ez dut uste inoiz hasi dudanik liburu bat garaiko hainbat egileren erreferentziarik gabe. Noizbait egin ahalko nuke saiakeratxo bat nire nobelen atzean dauden autoreekin. Karlos Linazasorok oraintsu plazaratu duen liburuan autoreen zerrenda bat ematen du, hasieran. Antzeko zerbait egin dezaket, nire literatur bidelagunak kontuan hartuta.

Egingo duzu?

Ez dut uste [barreak].

> *"'Euskarak ere behar ditu halakoak' bezalako arrazoiak duinak dira euskal komunitateari begira, baina artistikoki niretzat ez da nahikoa"*

Itzulpengintzak zein du etsai nagusi? Garbizaletasuna? Burokratizazioa? Erreferentzia falta? Besterik?

Ez nuke asmatuko hitz bakar bat esaten; hain da mundu zabala itzulpenarena. Itzulpena da euskal buletin ofiziala, itzulpena da publizitatea telebistan eta hedabideetan... Itzulpen literarioari nola deitu behar diogu? Asma dezagun izen bat horretarako. Gaztelaniaz itzulpengintzaren itzala ez da inondik inora gurearen berdina, ze gaztelaniaz administrazio ia guztia jatorrizkoa da. Horren eragina da hainbestekoa...

Bernardo Atxagak esana da itzulpengintzaren etxe bat sortu beharko litzatekeela, eta etxe horretan jarri beharko liratekeela langileak testuak itzultzen.

Itzulpengintzak arreta askoz ere handiagoa merezi du. Hori egin ahal izateko, agintean daudenak haren garrantziaz jabetu beharko lukete. Baina, badago inor Euskal Telebistako programazioan pentsatzen duenik euskararen eta euskara artistikoaren ikuspegitik? Euskal telebista euskaraz pentsatuko duenik bada? Ez bakarrik euskaraz egin behar dela, baizik eta euskaratik, euskararen premietatik, euskararen baliabideetatik. Euskarak nola eta zertan eman dezakeen ugariago. Buru pentsalariak falta dira hor goian, administrazioan, zein premiak dauden pentsatuko dutenak, euskaratik.

Berbelitzek dio: "Euskararen bukaerarik tristeena, euskararen

lurraldean soilik administrazioko hizkuntza egiten zelako hiltzea". Gutxi falta da horretarako?
Zorionez ez; iraungo ahal du euskarak, baina gertatzen dena da arriskua dagoela euskara gizartean nagusitzeko, baina modu gris batean, eta zenbait erabileretarako bakarrik. Bulegoetan akaso euskaraz atendituko zaituzte gerora, baina kalean aginduz eta lege bidez soilik, eta jakina, bizipozik gabe.

Administrazioko euskara horrek gaztelania du ispilu edo eredu. "Antilingua bat", diozu. Nola egin ihes aje horri?
Lehen-lehenik gaitza dagoen jakin, eta gero, gaitza diagnostikatu beharko litzateke. Baina premiarik ere ez da ikusten, goi-goikoek ez dute halakorik ikusi eta sentitzen.

"Arestik bazekien Danteren itzulpen on batek mesede handiagoa egingo liokeela euskarari eta euskal kulturari gure erakunde eta giro sozialetako normalizazio itxurak baino". Ideia hori sakon zenezake?
Muturrera eramana dago esaldi hori, inpaktu bat sortzeko; jakin badakit Dante euskaraz ematea baino lehentasunezkoagoko gauzak badirela, baina ondo pentsatutako estrategia kultural batekin eta testuen estrategia batekin, itzulpenekin gertatzen ari den bezala… Zeren literatur itzulpenetan estrategia bat daukate administrazioak eta EIZIEk (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartea) aspalditxotik. Gero egon zaitezke hautaketekin konformeago edo ez, baina gauzak pentsatuta, pixkanaka hobekuntzak txertatuz eta jarraipena emanez egiten ari dira. Antzerkigintza erori zitzaigun; fikzioa telebistan ez da ia praktikoki existitzen; hainbat eta hainbat ekimen erortzen joan dira jarraipen faltagatik. Eta arrazoi nagusia da administrazioa etekin azkarren bila dabilela, audientziak eta abar. Eta irauten duen apurrak irauten du jende gutxi batzuen temagatik; jende hori segituan antipatikoa eta astuna bihurtzen da, "orain ere badatoz betiko kontuekin" pentsatzen baitu administrazioak. Administrazioa esaten dut, baina hori bera gertatzen da talde politikoen barnean. Orokorragoa da, beraz, kontua. Zuk exijentziak planteatzen badituzu, makinariarentzat deserosoa da, arreta gehiago eskatzen du, diru gehiago eskatzen du, kontzientzia gehiago eskatzen du… eta zeregin hobeak badituzte, jakina!

Euskarazko zinemak arnas pixka bat hartu duenean fikzioa galdu da telebista publikoan. Zenbaterainoko galera da hori?
Fikzioa ez da askorik galdu pentsatzen bada lehen ere ez zegoela kristitinka hasteko moduko plangintzarik, fikzio-proiekturik telebista publikoaren aldetik. Zein da telebistaren fikzio-proiektua, badakite zer garrantzi duen fikzio autonomo batek euskararen normalizazioan? Iruditzen zait fikziorik biribilena guk praktikatzen dugula fikzioa eskatuz horren garrantziaz jabetzen ez denari.

Ordea, literatur itzulpengintzak erakusten du bidea egin, egin litekeela. Mirari txiki bat da edo lanaren emaitza?
Itzulpengintza eskola bat egon zen, eta gauza inportanteenak egin dituztenak eskola horretatik datoz; orain unibertsitatean ere badago eskola. Hori izan da oinarrizkoa, Martuteneko eskolan zeuden itzultzaile haiek izan dira sustengua. Horrez gain, irudiaren eta prestigioaren aldetik badago kontu bat kapritxosoa irudi lezakeena, baina ez da: *Ulises* daukagu euskaraz. Adibide bat da, baina balio duena adierazteko zer dugun. Horrek prestigioa ematen du, garai batean Bernardoren [Atxaga] *Obabakoak*-ek eman zuen bezala. Ez zen egiten genuen guztia hura, baina ematen dio prestigio bat euskal literaturari. Euskal literatura ari da bidea egiten. Eta euskal itzulpengintza ere ari da.

“Badago inor Euskal Telebistako programazioan pentsatzen duenik euskara artistikoaren ikuspegitik? Ez bakarrik euskaraz egin behar dela, baizik eta euskararen premietatik”

“Euskara Batua ez bada sortzailea, ez du balioko. Baina Batua da zaku bat dena kabitzen dena, ezin da Batu bera erakutsi Tuteran eta Azkoitian”

Helduentzako literatura itzulian bai egon da apustu garbi bat, Literatura Unibertsala sailak gidatua... Baina gerora, proiektu eta argitaletxe txikiagoek ere hartu dute bide hori. Badago kutsatze efektu bat.
Bai, argitaletxeak sortu dira, feminismoaren aldetik, pentsamenduaren aldetik, argitaletxe txikiak baina oso martxa politean doazenak, lan zainduekin. Hor badator funtzionamendu bat orain arte ez genuena. Asko eta asko datoz unibertsitatetik, edo han lanean ari direnengandik. Bada garaia, gainera, unibertsitateko jendeak bere lanak sozializatzeko. Sozializazio falta izugarria dauka akademiak, unibertsitateak. Hala ere, irratia entzutea besterik ez dago jabetzeko aurrera pausoak egin direla. Zientzialariak entzuten dituzu orain euskaraz primeran, modu didaktikoan, ulergarri eta oso txukun euskaraz. Hori ere bada zerbait.

Zergatik dago hain urrundua unibertsitatea, akademia, gizartetik?
Zure galderak afirmatu egiten du: unibertsitatea, akademia, urrun dago gizartetik. Zergatik? Kasta bat delako, tituluak emateko aparatua. Curriculum pertsonala gizendu nahiak isolatu egiten du ekimen akademikoa, bai *intra* eta baita gizarteari begira ere. Ekonomiaren *kortabistarekin* neurtzen da etekin akademikoa, eta erraz uler daiteke horizonte kulturala eta integrazio soziala oso urruti egotea bere ikuspegitik. Kulturalaren muin eta ikuspegi eskuzabaletik. Unibertsitateak publikatzen ditu gauzak, baina ezagutzen dugu zer publikatzen den? Unibertsitateak lotura gehiago du enpresa munduarekin gizartearekin baino. Eta horiek ere beharko dira, baina proiekzio soziala eskas du. Karrera egin duenean bukatzen da ikasle batentzat unibertsitatearen proiekzio soziala?

Humanismoaren baloreen galerarekin eta akademizismo larregizko batekin zerikusia izan dezake?
Bai, eta utilitarismoarekin. Karrera bat egiteak zerbaiterako balio behar du, eta zerbait hori beti ekonomiarekin uztartuta dagoen kontu bat da. Etekinarekin lotuta, zehatzago izanik. Baina hori gizarte guztiaren kontua da, normalean ez dugu nahi gure seme-alabek arte ederrak ikas ditzaten, adibidez.

Itzulpengintzak berak erakutsi du euskara batuak erregistro desberdinak eta hizkuntza moldeak dituela, baina euskara batuaren erabilgarritasuna ezbaian jartzen du zenbaitek azken boladan. Zer ari da pasatzen?
Batua kontsideratzen badugu zerbait zurruna, eta batzuetan ematen du ahalegin propioa egiten dugula hala kontsideratzeko, zerbait gramatikal hutsa, hori transmititzen badugu soilik eskolatik hasita... Orduan eredu horretatik desbinkulatzea oso erraza da. Ni ere ez nago ados, gainera, transmisio mota horrekin. Batua ez bada sortzailea, ez du balioko. Baina batua da zaku bat dena kabitzen dena. Ezin da batu bera irakatsi Tuteran eta Azkoitian. Zirkunstantzia soziolinguistikoak oso desberdinak dira, baina batean eta bestean egin liteke batua ederki asko, nork bere ezaugarriekin. Nik esaten dut badela garaia sortzaileok euskara batua puskatzekoa, baina hura hondatu gabe...

Nola egin liteke hori?
Zer egiten ari gara gure euskalkiekin. Igual nobela guztiek ez dute zertan izan tonu bera, eta zurruntasun bera. Kaleko erregistroei begiratu beharko diegu, batez ere elkarrizketa asko agertzen badira. Eta narratzailea zein den kontuan hartu beharko da: narratzailea arotza baldin bada, eta bere istorioa kontatzen ari bada, eta kontatzen badu euskaltzain bat balitz bezala...

Batua ezinbestekotzat hartzen duen diskurtsoa nagusi da, baina batuaren pedagogian eta sozializazioan ez dela asmatu esatea gehiegizkoa al da? Ez da entzuten halako diskurtso autokritikorik.
Hizkuntza guztietan normala da batu-estandararren aurkako joera nolabait, elitekotzat hartzen delako. Gazteak puskatu nahi du araua, estandarra, jerga eta argota erabili nahi ditu. Hori batetik. Bestetik, hizkuntza malgua da, eta espresio molde berriak sartzen ditugu, eta sartu behar ditugu, baina gero ez dugu egiten horren pedagogiarik. Garai batean, *Berria*-n zutabeak idazten nituenean, sarri samar sartzen nintzen Xuxenekin, ustez nahiko modu sinpatikoan. Esan nahi dut gorriz jartzen diguten guztia ez dagoela gaizki, ez da semaforo gorria. Euskaltzaindiak gomendatzen du, Euskaltzaindiak dio hau, aholkatzen du hau edo hori erabiltzea, baina kontestua hartu behar dugu kontuan. Kontestualizatu egin behar da hizkuntzaren erabilera. Ez da soilik gramatika kontu bat. Hor badago halako defizit handi bat.

Zarauztik Getariara etorri eta itzulerakoan beste bat zara?
Aldatzen naiz bai, esnatuta itzultzen bainaiz, eta hotza egiten badu, areago!

Itzul gaitezen bada. ●

LIBURUA

Fiskaltza ala arrantza

ERRUA ETA MAITASUNA
MARKOS ZAPIAIN
ELKAR, 2002

ARITZ GALARRAGA

Badira genero batzuk liburugintzan, oro har, baina partikularki gurean, gutxitu, txikitu, menostuak. Poesiaren bazterketa garaikidetik has gintezke, teatroaren oilotokirako kondenaraino. Iraganik memoriaren literatura esaten zaien oroitzapen, karnet, egunkari eta abarrekoetatik. Bai eta, zergatik ez, bildumak, adibidez prentsan atera izan diren testu, adibidez liburu iruzkinekin. Generoak nahastera jarrita, dietario literario modura irakur daitezke batzuk, autore baten irakurketa zerrenda komentatu gisa, are autore horrek deitura Zapiain badu, eta Markos izena. "Kritiko enpatikoa", Xabier Mendiguren hitzaurregilearen hitzetan, liburuarekin erotu arte bat egiten baitu, "liburuaren gakoa atzeman eta nabaritzekotan".

Errua eta maitasuna titulupean, 2000. urtearen bueltan Zapiainek hainbat agerkaritan atera zituen kritikak biltzen dira. Kritika, iruzkin, erreseina, deitu nahi bezala, ze, Mendigurenen hitzak berriz, Zapiainek "prentsako erreseinen funtzio duin baina txepela gainditu egiten du, eta literaturaren larreetara hegaldatu". Hemen primerako jeneroa aurkituko duzu. Filosofiatik gertu maiz, fikzioaren ingurumarietan ez gutxitan, are tarteka prentsa arrosarekin limurkeriatan. Liburu bat eta bakoitzaren gaineko iruzkin guztiek jarriko zaituzte martxan. Bainaren bat seinalatzearren, emakumezko idazle gutxi, Agirre, Highsmith, Woolf bi aldiz, erreferentziaren bat: "Muguruzatarrak gero eta nabarmenago dira geure kulturako Brönte ahizpak". Beste garai batzuk ziren, egia da, aro aurre-feministan kokatu behar gara.

Ezer ez inor mespretxatu gabe, baina bat nator: "Zapiainentzat literatura ezagutza-bide gorenetako bat da". Gauza litzateke, hartara, literaturaren gainean nola jardun. Azken kapitulu xume batean, kritika literarioaren poetika moduko bat aurkezten zaigu, ados egon zein ez, jakingarri suerta dakigukeena: "Liburuez aritzeko orduan, batzuek epaitzea lehenesten dute; beste batzuek, ostera, ateratzea, atzematea". Fiskaltza ala arrantza, beraz. Ahul samar dabil gure kritika –2002an esan zuen jada Jon Benitok–. Halako liburuek, generoagatik, autoreagatik, testuengatik, itzultzen dizute, tarte batez bada ere, galdutako fedea. ●



MUSIKA

Itsaso eta lurraren arteko gozamena

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Robert Treviñoren zuzendaritzapean.

Robert Treviño

RAVEL ETA MAHLER-EN OBRAK

ZUZENDARIA: ROBERT TREVIÑO
BAKARLARIAK:
JENNIFER JOHNSTON (MEZZOA)
CORBY WELCH (TENOREA)

GASTEIZKO PRINCIPAL ANTZOKIA.
URTARRILAK 31.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak, bere azken abonu kontzerturako, estilo ugaritako obrak aukeratu zituen, eta nolabait osagarriak. Maurice Ravelen melodikotasun urtsu eta mugagabeak Gustav Mahlerren lur gaineko sentiberatasunari bide eman zion set gozo bat oparitzeko, non orkestraren eta bakarlarien interpretazioek gogoratzeko moduko uneak izan zituzten.

Ziburuko maisuaren *Une barque sur l'océan* pieza zoragarriarekin hasi zen saioa. Obra hori, jatorrian pianoarentzat egina, *Miroirs* poliptikoaren zati bat da, eta oraingo honetan bertsio neutroa izan zuen, opakua. Beharbada, bertsio pianistikoaren oroitzapena genuen buruan, hain distiratsu eta liluragarria, eta horrexegatik bere orkestra-transuntua patinarik gabekoa irudituko zitzaigun. Nolanahi ere, irakurketa zuzena izan zen, baina ez genuen sumatu Ravelen obra batetik beti espero dugun kolore eta giroa.

Beste txinparta bat, ordea, Treviño-Orkestra binomiotik sortu zen *La Valse* poema koreografikoa interpretatzean. Egia esan, oraingo honetan ere ez genuen Ravel inguratzaile eta lanbrotsu hori entzun. Ez zen bertsio inpresionista tipikoa izan. Robert Treviñok Ravelen ikuspegi pertsonala erakutsi zuen, xehetasunean, motibo eta esaldien disekzioan askoz gehiago zentratuta soinu-efektu inguratzailean baino. *Valse* honetan askoz gauza gehiago entzun genituen, musika-errai gehiago. Bestalde, partiturari itsatsitako ikuspegi batekin egin genuen topo, garbia, gordina, baina izugarri erakargarria eta berritzailea.

Kontzertuaren bigarren zatia Gustav Mahlerren *Lurraren abesti* lan ederrari eskaini zioten. Interpretazio zirraragarria egin zuten, eta hori ez da harritzekoa kontuan hartzen badugu Robert Treviño konpositore horretan espezialista dela. Obrak, bere bost zatietan zehar, eskatutako emozioa eta zehaztasuna izan zituen, eta bakarlarien aldetik interpretazio bikainak entzun genituen. Corby Welch tenoreak, nahiz eta ahots-kolore monotono samarra izan, batez ere lehen mugimenduan, maila handiko kanta eskaini zuen une oro. Jennifer Johnston mezzoari dagokionez, bikain aritu zen dudarik gabe, eta emozio bizia transmititzen jakin zuen *Der Abschied* (agurra) amaiera ederrean, gai guztiak aparteko garbitasun eta lirismoz azalduz. ●

Iraganera itzulia

XULIA
LUR OLAIZOLA LIZARRALDE, 2019
IRAUPENA: 16 min

AINHOA GUTIERREZ DEL POZO

Azaroaren hasieran estreinatu zuen Lur Olaizolak bere lehen labur-arra Zinebin. Desintoxikazio zentro batean egondako emakume baten erretratua egiten du zuzendariak, iraganeko aztarnak oinarri. Hiru Damatxok ekoitzitako lanak bere ibilbidea egin du Xixongo Zine Festibalean eta azkenengoz, Donostiako Kresala zineklubean. Martxoaren 3an ikusteko aukera izango dugu Iruñeko Punto de Vista jaialdian ere, beste euskal lan batzuekin batera.

Hitz errepikakorren bukleak irekitzen du filma. Ahoskera perfektua da, guk geuk egin genezakeena baino hobea. Jarraian hainbat elementu tartekatzen da narrazioaren bidera eramanez: Lois Pereiro poeta galiziarraren hitzak, oroitzapen epistolarrak, artxiboetako irudiak, memoriaren paisaiak. Eta iragana kontatzen duten irudi horiek hemendik eta orainetik begiratuta daude, egungo Biurgun herriko beste kanpo paisaietan.

Paisaietan gertatzen da, batez ere, filma. 40 urte atzera desintoxikazio -zentroa egon zitekeen tokian eta orduan bezala, aurrera egiteko modua bilatzen du orain Xuliak. Badago zerbait, paisaiaz hitz egiten denean, barne-paisaietara eramaten gaituena. Era berean, iraganaren irudikapen bat dira orainaren deskribapenak; honek, behar dituen sakontasuna eta konplexutasuna ematen dizkio istorioari. Muntaketa lan fina dago mapa emozional horietan, non bide posible batek beste batera eramaten duen, eta aukerak zabaltzen dituen. Etorkizuna ez da inoiz ziurra izan. Kaos horretan, azken eszenak beregana-tzen du indar handien: Xulia erretzen ari da, behera begira. Etenaldi bat da. Behar genuen informazio dena emana izan zaigu, eta parez pare daukagu protagonista, "orain, kudea ezazue kontatu dizuedana" esanaz bezala. Azkenean beraren begirada heltzen da, zuzena, zalantzarik gabea. Ziurtasun gabezia hori ez da argituko, baina prest gaude bizitzari eusteko.

Iraganaren eta orainaren arteko mugak eman dit atentzio handiena lan honetan. Edo muga ezak. Nola itzuli berriro gertatu zitzaigunera? Joera lanzmanniar batek eraman zituen kontzentrazio esparruetatik biziraun zuten horiek berriro erailketa puntu horietara, urteetara. Gertatutakoen memoria biltzen du bederatzi orduko *Shoah* lanak, eta bertan katarsia probokatzea zen Lanzmannen helburua. Ez nago ziur katarsi hori bilatu behar dugun filmaren barnean edo kanpoan; baina nago, orainak iraganari beste esanahi bat ematen diola, eta alderantziz. Finean, Heraklitoren erreka gurutzatze hura bezala. Biurguneko basoak abagune bihurtzen dira, nor bere erritualak egiteko era. Dela liburu bat, paseo bat, eskutitz bat, edo film bat. ●

EGILEA | **ANA ZAMBRANO**

Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:

1. Eraikin erlijiosoa. | Argal, estu. **2.** Hartu. | Joera. **3.** Zaintzaile. **4.** Seinako multzoetan.
5. Burdinazko lokarri. | Zein pertsonarentzat. **6.** Urratu aditzaren infinitiboa. | Idaztera behartu.
7. Sorrera, sortzea. | Zeruari dagokiona. **8.** Piztu, irazeki. | Bere artean.

GOITIK BEHERA:

1. Bihar ez, hurrengoan. | Nafarroako herria. **2.** "Ahozabalka luzea, ... edo gosea". | Kirol-lasterketa. **3.** **Argazkiko udalerria (Nafarroa Beherea).** **4.** Egiazko, benetako.
5. Du, haiei. | Interjekzioa. **6.** Elikatu. | Helburu, xede. **7.**. ... Arga, nafarroako udalerria.
8. Etikari dagokiona. **9.** Hego Ekialde. | Joxean ..., euskal poeta gipuzkoarra. **10.** Eusko Alderdi Jeltzalea. | Deus. **11.** Bare, lasai. **12.** Truke. | **13.** Puska. **14.**. Barazki hostotsuak. **15.** Jaurtiketa.

Sudokua

ERRAZA

	2				3	6	8	
			2	9	6			
	7					3	9	2
5		3	4	8		9		7
1			9	6	2			3
2		4		3	5	8		1
3	1	6					5	
			6	5	9			
	5	8	3				7	

ZAILA

	5			8		1	7	2
				3				
			4			8		
8					4	3		
	4	7				9	1	
		6	5					4
		9			8			
				5				
2	8	5		7			9	

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

Eroritako hostoak	ORBEL
Ihar	
Zeken	
Klariona	
Gogor	
Enea	
Hobera	
Gizona emaztearekiko	
Neu, nihaur	
Niri	
Tontor, punta	
Oinaren azpia	
Loreen hauts	POLEN

EBAZPENAK

ATSOTZITZA

OTSAILA KATUEN HILA, MAIATZA ASTOEN HILA.

ANAGRAMAK

ORBEL
LEHOR
ELKOR
KLERA
ANKER
NIREA
ONERA
SENAR
NERAU
NEURI
ERPIN
OINPE
POLEN

ZAILA

4	5	3	6	8	9	1	7	2
1	6	8	2	3	7	5	4	9
9	7	2	4	1	5	8	6	3
8	9	1	7	6	4	3	2	5
5	4	7	8	2	9	1	3	6
3	2	6	5	9	1	7	8	4
6	3	9	1	4	8	2	5	7
7	1	4	9	5	2	6	3	8
2	8	5	3	7	6	4	9	1

ERRAZA

4	2	9	1	7	3	6	8	5
8	3	5	2	9	6	7	1	4
6	7	1	5	4	8	3	9	2
5	6	3	4	8	1	9	2	7
1	8	7	9	6	2	5	4	3
2	9	4	7	3	5	8	6	1
3	1	6	8	2	7	4	5	9
7	4	2	6	5	9	1	3	8
9	5	8	3	1	4	2	7	6

ESKER-ESKUIN: 1. ELIZA, MEHE, 2. TORI, JITEA, 3. ZAINDARI, 4. SEINAKA, 5. KATE, NORENTZAT, 6. URRA, IDATZARAZI, 7. SORKETA, ZERUTAR, 8. ISIOTU, BEREKIKO.

GOITIK BEHERA: 1. ETZI, USI, 2. LOA, KROS, 3. IRISARRI, 4. ZINETAKO, 5. DIE, ET, 6. JAN, ITU, 7. MIRANDA, 8. ETIKOA, 9. HE, ARTZE, 10. EAJ, EZER, 11. NARE, 12. TRUK, 13. ZATI, 14. AZAK, 15. TIRO.

Alicia Reyero

FIKZIOA DESERAIKITZEN

ANTZERKIA BOZGORAILU

"Antzezpena eta istorioak azaltzea maite dut. Baina guztiaren gainetik asetzen nau ahotsa lapurtu dietenei euren istorioak azaltzeko lanabesak ematea. Gizarte-bazterketa pairatzen dutenen aldeko lanabestzat ulertzen dut antzerkia. Horregatik, testuinguru isilarazietan bizi diren kolektiboekin lan egin dut azken hamarkadan: indarkeria matxista jasan duten emakumeekin, errefuxiatuekin eta espetxeetan talde sorkuntza eszeniko ikastaroak ematen, besteak beste. Azken bi urteetan generoaren ikuspegitik emakumeak fikzioan duen papera deseraikitzen saiatu naiz *Comando señoras* [Andreak Komandoa] ikuskizunaren bitartez".

"Fikzioak lapurtu digun espazioa berreskuratu nahi dugu"

Antzerkia bazterketa sozialaren kontra erabili duen aktorea eta antzerki sortzailea da Alicia Reyero (1976, Burgos). 2018an Bartzelonan abiatu zuen genero ikuspegia duen *Fikzioa deseraikitzen* ikastaroa, eta Errenteriako Niessen Kulturgunera ekarriko du martxoaren 1etik 7ra. Euskal Herriarekin harreman berezia dut, hain da horrela, semeari Urko izena jarri diola. "Txikitatik mirestu izan dut estigma guztien gainetik euskal gizarteak duen duintasuna eta borroka sena", dio.

SAIOA BALEZTENA **NOEMÍ ELIAS**

Noiz eta nola jaio zen *Comando señoras*?
2018an Bartzelonan abiatu genuen *Fikzioa deseraikitzen* ikastaroan landatu genuen lehen hazia. Generoaren ikuspegitik, sorkuntza eszenikoaren ereduak desegiteko ikuskizuna erditu genuen. Hainbeste gustatu zitzaigun, eta hain potentea izan zen, sorkuntza horri bizitza luzeagoa ematea proposatu nuela, eta taldeko eroek jarraitu zidaten.

Zein izan zen proiektua abiatzeko motorea?
Gogoratzen dut uda batean etxean nintzela, lanik gabe. Bat-batean konturatu nintzen 30 urtetik gorako lagun emakume aktore guztiak lanik gabe ginela, geure gizonezko bikoteak sekulako arrakasta izaten ari ziren bitartean. Orduan konturatu nintzen fikzioaren ereduak desberdintasun hori indartzen zuela: emakumeak 30 urtetik gora barregarri marrazten ditu fikzioak, bigarren mailako paperak emanez beti.

Bartzelonan bi ikuskizun egin dituzue urtarrilean. Bietan, sarrerak agortu dira. Zer deritzozu ikuskizunak izan duen harreraz?
Ikaragarria izaten ari da. Ikuskizuna gustuko izan duten edo ez alde batera utzita, esperientzia katartikoa izan da. Belaunaldi desberdinetako ahots asko biltzen ditu gure ikuskizunak. Eta gainera, erabili dugun tekniketako bat izan da, hain zuzen ere, bakoitzaren erreferenteekin lan egitea. Beraz, agertokiaren gainean dauden hamasei emakumeen ahotsak entzuteaz haratago, geure erreferenteen ahotsak ere entzuten dira. Horrek sekulako erantzuna eragin zuen ikusleen artean.

Adibidez?
Ikusleetako bat iraultza etengabean dagoen bere alaba nerabearekin joan zen, eta saio erdian altxatu eta ama besarkatu zuen. Beste emakume bat, ikuskizuna amaitu zenean, antzezleetako batengana joan zen bera bezalakoa izan nahi zuela esateko. Bitxia da jendearen erantzuna, baina era berean zentzua dauka, egitasmoaren erronketako bat bai-

"GAUZA ASKO DITUGU KONTATZEKO, ETA ZORIONEZ GEROZ ETA GEHIAGO GARA GEURE EKOIZPENAK SORTZEN HASI GAREN EMAKUMEAK".

tzen hainbeste estigmatizatu eta isilarazi diren emakumeei ahotsa ematea. Andreak heroina bilakatu ditugu eta merezi duten tokia berreskuratzen ari dira.

Zuen egitasmoa agertokietatik harago doa.

Bai, hiru adar ditugu: agertokiak, sare sozialak eta kalea. Fikzioak lapurtu digun espazioa berreskuratu nahi dugu horrela. Eta konturatzen ari gara sare bat dagoela, behar handia dagoelako, seguruenik. Adibide argia izan da Txileko Las Tesis kolektiboak abiatu zuen ekimen birala [Bortxatzaile bat zure bidean].

Hemendik aurrera non ikusiko dugu *Comando señoras*?

Nire erronka da, batetik, antzerki publikoak hartzea. Jakinda mugitzen zaila den ikuskizuna dela gurea, eszenan emakume askok parte hartzen dugulako. Egin daiteke, baina interesa egon behar da. Bestetik, sare sozialetan zabaldu ditugun bideoek jarraipena izango dute. *Señoras Salvajes* [Andre Basatiak] izango da hurrena, ekoizpenaren ondorengo lanetan ari gara eta martxoa edo apirila bitartean ikusiko du argia.

Emakume gisa, identifikatuta sentitzen zara fikzioan emakumeok dugun irudiarekin?

Inolaz ere ez. Ezin da orokortu, baina sexualizatutako pertsonaiak dira nagusi, eta ezaugarri oso jakinak dituzte. Zaila da eurekiko enpatia izatea. Zorionez gauzak aldatzen ari dira, baina bai, oraindik ere oso zaila da 40 urteko emakume batentzat paper duinak aurkitzea.

Baikorra zara?

Tira, ni ez naiz ekoizle batek nire etxeko atea noiz jo zain geldituko. Gauza asko ditugu kontatzeko, eta zorionez geroz eta gehiago gara geure ekoizpenak sortzen hasi garen emakumeak. Gertatzen dena da, beti prekarietatearekin jotzen dugula eta sekulako indarra atera behar izaten dugula aurrera ateratzeko. Horrek izugarrizko lana eta inbertsioa eskatzen du, eta argi dago edonork ez duela horrela jarduteko ez indar eta ez baliabiderik.

Emakume ereduak ere aztertzen dituzue. Garai batean etxean haurrak zaintzen zituzten emakumeak nagusi baziren, egun "super ama" izatearen presioa jasaten du emakumeak.

Esango nuke feminismoaren lehen iraultza geure amek sustatu zutela: orduan ulertu zuten ez zirela etxean geldituko haurtxoak zaintzen. Orain arazoa da amatasuna pribilegio batean bilakatu dela, nik lana eta amatasuna kudeatu ditzazket posible dudalako. Izugarria izan da esperientzia hau, lehenik haurdun eta orain Urkorekin –9 hilabeteko semea– bizitzea. Hori bai, osasunean eragin dit eta biziraun badut izan da edo txikia lanera eraman dezakedalako, edo norbaitekin utzi dezakedalako.

Martxoan Errenteriara ekarriko duzu *Fikzioa deseraikitzen* ikastaroa. Aurrerapenik egiterik bai?

Bartzelonan hasitako esperientzia ekarriko dut Euskal Herrira, generoaren ikuspegitik, fikzioan historikoki nagusitu diren ereduak deseraikitzeko sorkuntza eszeniko kolektiboa sortuz. Berezia izango da, batetik, orain arteko ikastaroak emakumeekin egin izan ditudalako bakarrik eta Errenterian, aldiz, emakume, gizon zein disidentziei zuzenduta dagoelako. Eta, bestetik, Euskal Herria biziki maite dudalako eta ilusio berezia egiten didalako bertan lan egiteak. ●

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

Inauteriak bukatuta, tolosarrak beren ohiko umore faltara itzuliko direla dio EHUko ikerlari batek

Inauteri garaia iristen den bakoitzean euskaldun guztiek galdetu izan diote beren buruari zer pasatzen den Tolosan: urte osoan munduko jenderik gatzgabeena izaten da eta inauteriak iristean berriz, biharko egunik ez balego bezala egiten dute parranda. "*Tolosarren umore-zikloak: ikerketa biofisiko bat*" tesian fenomenoaren azalpena eman du Uzturre Herniozabal EHUko ikerlariak. "Pertsona bakoitzak umore kopuru mugatu bat dauka, karkarretan neurtzen dena. Pertsona arrunt batek 200-220 karkar inguru erre ditzake urte bakoitzeko. Bada, tolosarrek ia karkar guztiak inauterietan erretzen dituzte eta gero gabe geratzen dira. Horrek esplikatzen du zergatik diren hain jende zimel eta politikoki korrektoa urte osoan zehar", azaldu dio Beranduegiri. Salbuespenak badirela ere esan du, baina "zoritxarrez", kasu isolatuak direla: "Tolosarra bazara, zaila da halako *rictus* iraunkor bat ez edukitzea. Eta okerrena disimulatzen saiatzea da: Glaukomako abeslariak, adibidez, beltza balitz bezala hitz egiten du, baina argi dago ez duela funtzionatzen". ●

SAREAN ARRANTZATUA

SanValentHil

Koronabirusa

REALEKO ZALEAK, URAK DAKARRENARI BEGIRA.

Realzaleak heldu dira jada Mirandara, Ebrok daraman kokainaren arrastoan

Gipuzkoar askorentzat turismo-gune ezaguna da Miranda de Ebro: Alde Zaharreko Herriko Tabernak betidanik erakarri izan ditu, eta zer esanik ez hura izatea ur fekaletan kokaina arrasto gehien duen Europako herria. Hori horrela, Realzalez jantzitako jende piloa iritsi da egunotan bertara, partida martxoaren 4ra arte jokatuko ez den arren. Mirandako turismo-bulegotik jakinarazi digute Ebron piragua-ibilaldiak eskaintzen dituzten agentziak eskaerari ezin erantzun dabiltzala. "Gipuzkoarrek ez diote paisaiari so egiten, uretara begira doaz, eta hodi septiko bat ikusiz gero hara hurbiltzen dira, ura pototxoetan jaso eta auskalo zer egiteko", kontatu digu piragua monitore batek. Realeko jokalari batzuk ere ikusi ditugu ibai ertzean: "Mirandeseko jokalariek Anoetako partidan korrika nola egiten zuten ikusita, pozima bera erabiltzea erabaki dugu, eta hemen gaude, ea Trintxerpetik etorritako zaleek material pixkat pasatzen diguten. Oyarzabali dosi hirukoitza emango diogu...". ●

Amul been nit ku leegalul
inor ez da ilegala

ARGIA

KAMISETA SALGAI!
15€*

Artikulu hauek erosita ekarpen ekonomikoa egingo diozu **Bilboko Mbolo Moye Doole** elkarteari.
Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!



JERTSEAK
4 KOLORETAN
24€*

PAPE NIANG
HASIERA BERRI BAT
LIBURUA
14€*

POLTSAK
8€*

Eskaerak egiteko sartu: **AZOKA.ARGIA.EUS** edo deitu **943 37 15 45** telefonora

*Bidalketa gastuak 4 €

Bizi nahi duen herria!

Jende gehiagori
ahotsa emateko,
lagun gehiagorengana
heltzeko eta
eragiten jarraitzeko
EGIN ARGIAKOA!

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA

ARGIA